



DERIOKO UDALA

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA HONAKO HAU ARAUTZEKO: DERIOKO
UDALERRIAN LORATEGIAK MANTENTZEKO, BERRITZEKO, GARBITZEKO ETA
HOBETZEKO, ZERBITZU HORRETAN BARNE DAUDE BERDEGUNEAK, ZELAIK,
LANDAKETAK, KANPOKO LORONTZIAK ETA BARRUKO LOREAK, BAITA BIDEETAN
SASIAK KENTZEA BEHAR DENEAN.**



DEGIKO UDALA

Aurkibidea

I. KAPITULUA.....	4
KONTRATUAREN GAIA. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK.....	4
1.1. artikulua: Gaia	4
II. KAPITULUA.....	4
KONTRATUAREN GARRANTZIA ETA ZABALKUNDEA.....	4
2.1. artikulua: Irismena eta zabalkundea	4
2.2. artikulua: Langileak eta Baliabide Materialak.....	5
2.3. artikulua: Hornidura	5
2.4. artikulua: Araudi aplikagarria eta erreferentziakoa.....	5
III. KAPITULUA.....	7
KONTSERBAZIOA ETA MANTENAMENDUA.....	7
3.1. artikulua: Kontserbazio gaia era ureztaketa mantenamendua.	7
3.2. artikulua: Gaurko eta etorkizuneko instalazioak eta lorategiak	7
3.3. artikulua: Gauzatze unitateak	8
IV. KAPITULUA	9
KONTSERBAZIO LANEN DESKRIBAPENA.	9
4.1. artikulua: Soropil eta landen kontserbazioa.	9
4.2. artikulua: Kanpoko lorontzien eta barruko landareen kontserbazioa.	14
4.3. artikulua: Landaketen kontserbazioa.	15
4.4. artikulua: Udal bideetan sasiak kentzea.	20
4.5. artikulua: Bestelako jarduketak.....	21
4.6. artikulua: Txarto eginda edo egin gabeko lanak	21
V. KAPITULUA	23
LANAK EGITEA.....	23
5.1. artikulua: Kontratastaren betebeharrak.....	23
5.2. artikulua: Kalitatearen kudeaketa sisteman eta ingurumena.....	23
5.3. artikulua: Urgentzia eta larrialdietako zerbitzuak	24
5.4. artikulua: Jagotza	25
5.5. artikulua: Hondakinak kudeatzea.....	25
5.6. artikulua: Urteko programa, hileko programa eta txostenak.....	27
5.7. artikulua: Akatsak kontratua gauzatzean – Zerbitzuaren mailak	29
VI. KAPITULUA	31
LANGILEAK ETA KONTRATUAREN GAINONTZEKO ELEMENTUAK.....	31



DEGIKO UDALA

6.1. artikulua: Ematera Langileak	31
6.2. artikulua: Langileekin betebharrekoak	33
6.3. artikulua: Langileak subrogatzea	36
6.4. artikulua: Baliabide materialak	37
6.5. artikulua: Ibilgailuak eta makineria	37
6.6. artikulua: Instalazio finkoak	39
6.7. artikulua: Komunikazioa	40
6.8. artikulua: Materialen hornidura	40
6.9. artikulua: Lan-arroparen eta ibilgailuen errotulazioa	40
6.10. artikulua: Segurtasuna eta Osasuna	41
VII. KAPITULUA	42
LANAK ZUZENTZEA ETA BERRIKUSTEA	42
7.1. artikulua: Lanak berrikustea	42
7.2. artikulua: Lanak zuzentzea	42
VIII. KAPITULUA	44
LANAK ETA HORNIDURA EZBERDINAK	44
IX. KAPITULUA	45
ERANTZUKIZU ZIBILAREN ASEGURUA	45
X. KAPITULUA	46
BERMEAREN EPEA LANDAKETAN, MATERIALETAN ETA ZERBITZUETAN. BAJAK ETA ELEMENTUAK KONTRATISTAREN PENTZURA ETA UDALAREN PENTZURA. BESTE PRESTAZIO BATZUK	46
10.1. artikulua: Bermearen epea landaketan, materialetan eta zerbitzuetan	46
10.2. artikulua: landaketak eta landare berriak jartzea. Elementuak eta beste prestazio batzuk	46
XI. KAPITULUA	49
INBENTARIOA ETA LANEN URTEKO PROGRAMA.	49
XII. KAPITULUA	50
BETEKIZUN ETA EZ BETETZEAGATIK ZIGORREN KONTROLA	50
1. ERANSKINA - INBENTARIOA	52
2. ERANSKINA – SUBROGATZEKO DIREN LANGILEAK	55
3. ERANSKINA – PREZIO UNITARIOEN ZERRENDA	56
4. ERANSKINA – PLANOAK	59



DERIOKO UDALA

I. KAPITULUA

KONTRATUAREN GAIA. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK.

1.1. artikulua: Gaia

Baldintza teknikoen agiri honen gaia da esleitzea zerbitzu hau: Derioko udalerrian lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko, zerbitzu horretan barne daude berdeguneak, zelaiak, landaketak, kanpoko lorontziak eta barruko loreak, baita bideetan sasiak kentzea behar denean.

Zerbitzu hau ingurumena eta laneko osasuna errespetatzen duten metodoen, praktiken eta produktuen bidez gauzatuko da, eta, besteak beste, hondakinen kudeaketa egokia barne hartuko du.

Kontuan hartuko da Derioko Udalak duen konpromisoa jasangarritasunarekin, Udalsarea 21 UDALSAREA 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea eratzeko laguntza-hitzarmenean adierazita dagoena, jasangarritasunean eta ingurumen kalitatean eraginak izango dituzten alderdi guztiak erregularizatzeko.

II. KAPITULUA

KONTRATUAREN GARRANTZIA ETA ZABALKUNDEA

2.1. artikulua: Irismena eta zabalkundea

Kontratuaren irismena eta zabalkundea da gaia da honako lanak betetzea: lorategiak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko, zerbitzu horretan barne daude berdeguneak, zelaiak, landaketak, kanpoko lorontziak eta barruko loreak, baita 1. Eranskinean adierazita dauden bideetan sasiak kentzea, Baldintza agiri honek ikusita dauden lanen eta aldizkakotasunaren arabera.

Hala ere, Derioko Udalak eskubidea eta ahalmena ditu kontratistari agintzeko beste guneen eta aldean mantentzea, %7ko gehikuntzara arte, zerbitzuaren ezusteko beharren aurrean. Zerbitzua aurrez ikusitakoa baino txikiagoa bada, fakturatzeko zenbatekoa txikiagoa da proportzionalki.

Beraz, zerbitzuaren zehar, behar diren berraztertzeak egin daitezke zerbitzuak behar denean izateko (Derioko berdegune eta instalazioen aldaketengatik), zerbitzua hobetzeko asmoz eta hobetzeko helburuarekin. Udalak egoki uste dituen guneak baja emango ditu zerbitzuan.

Halaber, Derioko Udala eskubidea du komenigarritzat jotzen dituen lanak ez gauzatzeko edo horien aldizkakotasuna murrizteko, kontratistarentzako konpentsaziorik ekarri gabe.

Enpresa esleipendunaren ardura da mantentzea (garbiketa eta sasiak kentzea, inausketa, zuhaitzak aldatzea eta zuhaitz berriak landatzea) lorategi-guneak eta udal bideak, eta baita tratamendu fitosanitarioak, bide-sareak eta kaleak ere, Baldintza agiri honen 1. Eranskinean adierazita daudenak. Horiek mantendu behar dira funtzional, -apaingarri- eta ikuste-egoera tekniko perfektuan, jarritako baldintza berezien arabera.



DERIOKO UDALA

Inbentarioaren 1. Eranskinean egiteko kopuru txikiena ere adierazita dago, akatsagatik alde batera utzi zirenak sartuz.

2.2. artikulua: Langileak eta Baliabide Materialak

Kontserbazio lanetarako kontratatuko dira: behar den esku lana kontserbazio ekipoak egiteko, makineria, garraioak, materialak, lanabesak, eta lanak eta eragiketak betetzeko beste tresna zehatz batzuk, baldin eta ofizio onaren orden logikoan eta praktikoan beharrezkoak badira, horiek aurkeztutako prezioaren barruan egongo dira, nahiz eta espresuki seinalatuta ez egon.

2.3. artikulua: Hornidura

Hornidura guztiak edo material garraioak kontrolatuko dira Udalak jartzen dituen lekuetan eta baldintzetan. Udalak eskatzen duen kasu guztietan, kontratistak hornitutako materialaren analisiak eta entsaioak emango ditu inolako kargurik gabe. Izatekotan, Udalak hornikuntza zehatz baten tipoa, ezaugarriak eta baldintzak esango ditu, komenigarritzat hartzen badu. Zirkunstantzia hori bete beharko dute esleipendunek, ala kudeaketak egin beharko dituzte hura lortzeko arrazoizko epean.

2.4. artikulua: Araudi aplikagarria eta erreferentziakoa

Kontratu mota honetako aplikazioko Araudi zabalaren artean, erreferentzia-arau batzuk hartzen dira, berdeguneen gaineko zerbitzu publiko espezifikoak kalitate eta iraunkortasun irizpideekin gara dadin.

Baldintza agiri honetan adierazten den eta Toki Erakundeei eragiten dien indarreko legeriaz gain, aplikagarriak dira:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentza-araua, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoak adjudikatzekeko prozeduren koordinazioari buruzkoa.
- Sektore publikoan kontratuei buruzko 3/2011 Lege Errege Dekretua..
- Urriaren 27ko Batzordearen 2006/732 CE (Lorategi-ekipoak – inausketen hondakinetarako birrintzaile/birringailu motorduna - Segurtasuna 98/37 CE Zuzendaritzarekin bat etorritz).

Aipatutako araudi honekin batera aplikagarriak izango dira: berdeguneen mantenamenduan erabilitako prozesu eta materialen baldintza teknikoei eragiten dien legeria, eta legeria ingurumenaren gaineko babesari buruz, ingurumen eraginari buruz, energiari buruz, hondakinei buruz, lan-segurtasun eta osasunari buruz, irisgarritasunari buruz, lurzoruen babesari buruz, plagizidei buruz, ongarriari buruz, fitosanitarioei buruz, Udal Ordenantzetan agertzen diren preskripzioak, Arauak, Jarraibideak edo Araudi ofizialak, baldin eta aplikagarriak badira zerbitzu honetan.

- Legeak, dekretuak, aginduak eta araudiak lan-segurtasun eta osasunari buruz.
- Hondakinak kudeatzeko legeak, dekretuak, aginduak eta arauak.
- Otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra, Euskal Herriko Ingurumena babesteko dena.
- Ornamentuzko zuhaitzak baloratzeko metodoa "Norma Granada". Asociación Española de Parques y Jardines Públicos. MAB-UNESCO (2008an berrikusia).



DERIOKO UDALA

- Gizabide udal Ordenantzak, Parke eta Lorategi Ordenantza, Hiri elementuen Udal katalogoa, Ingurumen iraunkortasunaren gaineko plana, eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikagarriak diren udal araudiak.
- European, estatuan eta autonomi erkidegoan aplikagarria den beste legeria bat.



DERIOKO UDALA

III. KAPITULUA

KONTSERBAZIOA ETA MANTENAMENDUA

Kontratuaren gaia da: berdeguneak, lorategiak, lorontziak, zuhaitzen lerrokapena eta 1. Eranskinean adierazita dauden udal bideak mantentzea eta kontserbatzea, bere gain hartuz:

- Kanpoko lorezaintza kaleetan, plazetan eta parkeetan.
- Kanpoko lorontziak eta barruko landareak.
- Ureztaketa sarea.
- Udal bideak.

3.1. artikulua: Kontserbazio gaia era ureztaketa mantenamendua.

Kontratua xedea da: 1. Eranskinean ezarrita dauden instalazioen mantenamendua eta kontserbazioa, eta kontratuaren iraunaldian zehar Derioko Udalak sartzea erabakiko duena ere.

Zerbitzuan adskribituta dauden ibilgailu eta material guztiaren zuzenketa eta prebentzio mantenamendua hartuko du kontratistak, eta kontratuaren iraunaldian behar diren kontsumigarriak ere, zerbitzu bikaina ematen dela bermatzeko.

Era berean, zerbitzuari emandako lanabes guztiak kontserbazio- eta garbiketa-egoera perfektuan egon behar dira beti, kontratuaren hasierako egunetik aurrera.

Halaber, berdegune bakoitzeko ureztaketa sarea erabiliko dute euren ardurapean mantenamenduari eta kontserbazioari dagokienean, eta emandako urari erabilera ona emango zaionaren arduradunak izango dira. hodiak, hoditeria, eskuz ixten diren maskorrak, maskorrak oro har, ihinztargailuak, barreiragailuak, tutuetako ziriak, ur-hartuneak, maskorren kutxatila, eta abar.

Ureztaketa instalazioan izan daitezkeen ihesak detektatu eta konpondu beharko ditu larrialdiarekin. Haustura kanpoko faktoregatik bada, konponketa egingo da erantzulearen pentzura.

Ureztatzeko uraren hornikuntzari dagokionez Udalak hartunearen behealdean jarriko du.

3.2. artikulua: Gaurko eta etorkizuneko instalazioak eta lorategiak

3.2.1. Esleipendunak instalazioak jasoko ditu kontratuaren jarduera hasi eta momentu horretan dauden bezala, inongo eragozpenik edo horregatik oztopoa argudiatu ahal izan gabe. Aurrez lizitatzailerek instalazioak bisitatu ahal izango dituzte ikertzeko, bidezko baimenarekin eta inola ere bere funtzionamendua oztopatu barik.

3.2.2. Kontserbatu behar diren lorategi-gune guztiak 1. Eranskinean jasota daude, non azalerak eta Udalaren berdegune guztien elementu indibidualak adierazita dauden.

3.2.3. Kontserbatzeko espazio osoa finkatzen da: kontserbatu behar diren berdegune bakoitzeko neurketa indibidual guztiak, 1. Eranskinean jasota daude, eta beste gune batzuen mantenamendu puntualak eta eremuak, guztira, %7ko gehikuntza; arestian aipatu den bezala.



DERIOKO UDALA

Kontratuaren iraunaldia hasten denetik hiru hilabetetan, baldintza agiri honetan jasota dauden neurketei dagokienean, idatziz, oharrak eta eragozpenak formulatu ahal izango ditu esleipendunak. Udalak, horiek konprobatu ondoren, aintzat hartuko dira 1. Eranskinaren azalaren koadroa aldatzeko. Epe hori agortu ondoren, edozein erreklamazio desegoki hartuko da berdegune bakoitzerako jarritako azalaren neurri zehatzetik etorriz gero.

3.2.4. Esleipendunak kontserbazio zerbitzuan hartu beharko ditu sortuko diren berdegune eta zuhaitz berriak, obra berriak, handipenak, harrerak, erosketak, birsorkuntzak eta abar egiten dituenean Derioko Udalak, baldin eta azalera edo kontratazio honen unitateak gehitzen badira %7tik gora, 2.1 artikuluan aipatuta, baldintza berdinekin eta gainontzeko adjudikazioaren prezio unitario berdinekin.

3.2.5. Inbentarioan edozein aldaketa jasoko da, baldin eta azalaretan erabilera aldatzen bada, aldi baterako erabilera desberdinak egiten badira, edo landareak hiltzen badira. Eta aurrez aipatutako margen luzagarria %7tik gora gertatzen bada, kontratistak jasoko duen zenbatekoak aldaketa izango du. Beraz, baldintza agirian argitaratzen denean Derioko Udalarari aurkeztuko zaion eskaintzan, lizitatzailerak 3. Eranskinetan jasotako zerbitzuen prezio unitarioak aurkeztuko ditu, eta horiek aplikatuko zaizkie kobratuko diren zenbatekoei baldin eta kontratatutako zerbitzuetan %7tik gora gertatzen bada.

Zerbitzua hasten denean, esleipendunak inbentario bat egin behar du lore unitateekin, zuhaixkekin, , heskaiekin, zuhaitzekin eta lorontziekin, eta harri hondarren metro karratu eta zuhaixkekin eta abarrekin, aspektu honetan inbentario osoa izateko asmoz.

Gainera, sei hilero, inbentario hau eguneratuko da, 1. Eranskinetan dagoen osagarriarekin, mantenamenduari eragiten zaiona txikiagotuz edo handituz. Esleipendun enpresak honelako aldaketen berri emango Derioko Udalarari, horretarako ezarritako idazkien bidez.

3.3. artikulua: Gauzatze unitateak

Kontratu honek dituen gauzatze-unitateak dira 1. Eranskinetako berdeguneen inbentarioan deskribatzen direnak. Hori egin da gauzatze-unitate horiek kontuan hartuta, eta erreferentzia izango da kasu bakoitzean aplikatuko den irizpidea bereizteko. Ez da aldaketarik onartuko gauzate-unitate batetik beste gauzatze-unitate batera kontenplatutako elementuetan.

Soropilen azalera neurtzeko irizpidea izan da zuhaitzak deskontatu barik, beraz, ez da mantenamendu bezala jotzen zuhaitzaren edo zuhaixkarako txorkoak. Obra-unitate mota berean espezie ezberdinak eta zuhaitz barietate ezberdinak daude, zeinek kontserbazio lan ezberdinak dituzten, nagusiki, inausketari eta izurriei dagokienean.

Esleipendunak, gauzatze-unitate bakoitzean, lan guztiaren batez bestekoa hartu behar du, gauzatze-unitateak baloratzean prezio unitarioa bakarra da unitatea osatzen duten tipo ezberdinetarako; eta prezio horretan mantenduko dira alta berriak, edozein motakoa bada ere.



DERIOKO UDALA

IV. KAPITULUA

KONTSERBAZIO LANEN DESKRIBAPENA.

Lorategi-guneak egoera botanikoak, egoera teknikoan, osasun egoeran, egoera funtzionalean eta ornamentuko egoeran behar bezala mantentzeko egin beharreko lan guztiak honakoak dira.

4.1. artikulua: Soropil eta landen kontserbazioa.

Soropilak eta zelaiak mantentzeko lanak::

- a) Moztea.
- b) Ureztatzea.
- c) Ertzak moztea.
- d) Belar txarrak kentzea edo jorratzea.
- e) Tratamendu herbizida ertzetan eta txorkoetan.
- f) Aireztatzea eta eskaratzea
- g) Birgizentzea.
- h) Berrereina.
- i) Ongarritzea.
- j) Tratamendu fitosanitarioak.

4.1. a) Belarrak moztea.

Behar den beste maiztasunez moztuko da belarra, belarrak altuera larregi hartu ez dezan, estetikoki eta fisiologikoki kaltetu ez dadin soropila. Soropil mota bakoitzerako gehieneko altuera finkatuko dute Udaleko zerbitzu teknikoek.

Atal honetan berdeguneen mozketa, sortutako belarren mozketa ere sartuta daude, baldin eta belardizat jo badaiteke soropila erein gabe.

Belarraren mozketa zuzena izan dadin honako arauak beteko dira:

- Saihestuko da soropila moztea bustita edo heze dagoenean.
- Aldizkatuko da mozketa zentzua eta norabidea.
- Mozte-xaflak egoera onean eta zorrotasun egokian mantenduko dira eta berrikusiko dira, horrela mozketa garbia izango da eta landareak ez dira erauziko.
- Belarra mozketo makinak presiorako urarekin eta soluzio gungizida batekin garbituko dira gaixotasunen zabalkundea saihesteko, gutxienez hilean behin.
- Aldatuko dira beti, eta progresiboki, mozketa altuerak.

Soropilaren mozketa sartuko dira lorategi zonaldeak baldin eta hauek topo egiten badute honakoekin: zintarriak, hormatxoak, zoladurak eta abar, soropilak fabrika lanak ez indarbidetzako moduan.

Lan honetan honakoak ere sartuta daude, arrastailatzea, soberan dauden produktuak garbitzea eta kentzea, eta bideetara jausten direnak, eta horiek eramatea hondakindegiko kontrolatura edo baimendutako kudeatzaileera.

Behar besteko maiztasunez egingo da, estetikoki eta fisiologikoki belarraren gehieneko altuerak soropila hondatu ez dezan. Orokorrean, soropilaren altuera izango da 3-5 cm-koa.



DERIOKO UDALA

Titulu orientagarria, 1. Eranskinaren inbentarioan jasota daude gauzatze-unitate bakoitzari egin beharreko urteko mozketak.

4.1. b) Ureztatzea

Landare elementuak ureztatuko dira behar duten maiztasunarekin urteko saioaren arabera, Landare-elementuak gomendatutako maiztasunarekin ureztatuko dira, urteko sasoiaren, lurzoru zein klimaren ezaugarrien eta espeziearen arabera; hala, landare-elementu bakoitzak inguruan duen lurrean behar bezala hazteko eta garatzeko behar duen ur kopurua aurkituko du.

Ureztaketa egingo da horretarako jarritako instalazio finkoak erabiltzen.

Kontratatik beharreko baliabideak jarriko ditu zona hauek behar bezala ureztatzeko.

Ureztatzearen instalazioa mantentzea eta kontserbatzea da esleipendun enpresaren betebeharra; beraz, ezin du alegatu ureztapen eza denboraldi handian matxuragatik. Ureztatzeko instalazioan akatsaren bat suertatuz, esleipendun enpresak ureztatze-kontrolari ekingo dio edozein ur-falta saihesteko.

Ureztatzeko maiztasuna eta orduak esleipendun enpresak jarriko ditu, beti Udaleko zerbitzu teknikoek onartuta.

Kontsumitutako ura Udalaren kontura joango da. Esleipendunak ez du erabiliko ureztatzeko beharrezkoa dena baino gehiago, hori ezinbestekoa izango da, eta kontuz ibiliko da txarto itxitako ur ahoetan galerarik izan ez dadin, balbuletan akatsik izan ez dadin edo beste edozerekin,

Ureztatze-lanak lehentasuna izango dute uda garaian, eta arreta handia jarriko zaie zuhaitzei, lorontziei eta landareekin, zuhaixkekin eta bizikorrekin landatutako gainazalei.

Kontratatik ureztatzeko siteman aldaketak satu nahi baditu edo bere pentzurako aldaketak sartu gura baditu, Udaleko Arduradun Teknikoaren baimen idazkia izan behar du espresuki, horretarako eskaera aurkeztu eta egingo diren lanak aipatuko ditu.

4.1. c) Ertzak moztea eta biribiltzea.

Soropil eremuko mugetan eta belarrek bideak, loren tokiak eta landare bizkorak hartu ez ditzaten, ertzak mozteko lanak egingo dira aldian-aldian, soberan dagoena kentzen, baita sustraiak ere.

Honelako lanak egingo dira ertzak mozteko makinarekin, non makinak nayloneko firua izango duen, eta soropilaren perimetro osoan zehar.

Kontu handiz ibili beharko da, eskuko sasi-garbitzeko makinaren hariak soropileko landareen enborretan kalterik ez giteko.

4.1. d) Belar txakar kentzea edo jorraketa.

Soropiletik belar txarrak kentzea edo jorratzea egingo da soropilari itxura kentzen bezain laster. Kenduko dira eskuz edo herbizida selektiboak erabiliz, azken honetan, Udaleko Eskumeneko Zuzendaritzak berak baimena emango du proposatutako herbizida selektiboa



DERIOKO UDALA

erabiltzeko, eta ereitean erabilitako espeziek eta lorategian dauden gainontzeko landareek bizirik iraun dezatela bermatuz.

Lau jarduketa jarriko dira urteko maiztasunean.

4.1. e) *Herbizidekin Prebentzio tratamendua herbizidekin ertzetan eta txorkoetan.*

Honelakoak egiteko maiztasuna murrizteko, emaitzak hobetzeko eta enborrekin kontaktua saihesteko asmoz, mantenamendua perfilatu kimiko bat izango du, herbizida egokiekin, Udaleko Zerbitzu Teknikoek onartuta. Kontratistak, derrigorrez, beher diren aplikazio guztiak bete behar ditu herbiziden eraginkortasunaren eta burutzen dituzten aplikazioen arabera.

Dena den, ingurumenari kalterik txikiena egiten dioten herbizidak erabiliko dira, eta zelaietan sortu daitezkeen belar txarrei kontra egingo zaie.

4.1. f) *Aireratzea eta eskarifikatzea*

Soropilaren gainazala apurtzean datza. Normalean gainazal hori tatch-ak osatzen du. Tatch-a lurraren gainean geratu diren aurreko mozketetako hondakin pilatuak dira; hondakin horiek ez diote urari zein aireari egokiro sartzeari uzten.

Ekintza hori soropila moztu bezain laster egin behar da, horrela lortutako zatiak atereaz eta kenduz.

Horretarako, kontuan izan behar da zerbitzuen eta instalazioen banaketa, batez ere, lurperatutako ureztatze-sistemak, zuhaitzen sustraiak eta zuhaixkak, kalterik ez egiteko.

Tatch geruza ura, mantenu-gaiak eta airea sartzeko lodiegia denean eta soropilak zapaltzeak, tenperatura altuak, ur falta eta izurriteak zein gaixotasunak jasateko gai izateari uzten dionean, eskarifikazioa egingo da. Ezarri da geruza gehienez ere 25 mm-koa izango dela.

Eskarifikazioa egiteko, beharrezkoa da soropilak siku egotea, eta ahal dela, hasierako haztealdian egingo da; eguraldi egokia dagoenean, berreskuratutako ahal izateko.

Horrez gain, aireztatze sakona ere egingo da gutxienez urtean behin, oro har, udaberrian. Aireztagailu bat pasako da soropiletik eta, ondoren, bergizendu egingo da simaur-ongarriarekin edo turba eta harearekin. Bergizentzen hasi aurretik, aireztatze-prozesuak eragindako zatiak atera eta kendu behar dira. Tratamendu hori zerbitzu teknikoak erabakitako berdeguneetan emango da.

4.1. g) *Bazkatzea.*

f) atalean azaldutako esku-hartzeen ostean, eta erabilera, higadura zein trinkoketa direla eta, soropila berrelikatu beharko da. Horretarako, humusa eta hareak erabiliko dira, zuloak betetz eta berriki moztutako belarraren puntak airean utziz. Bergizendu ondoren, arrabola pasatu beharko da.



DERIOKO UDALA

Akasdun ereiteagatik edota ondorengo higaduragatik, soropilean soilguneak daudenean, berrereitea izango da irtenbidea, lehenengo ereitean erabilitako nahasketa berberekin. Pausu hori egiteko, lehenik f) eta g) ataletako ekintzak egingo dira.

4.1. h) Berrereitea

Akasdun ereiteagatik edota ondorengo higaduragatik, soropilean soilguneak daudenean, berrereitea izango da irtenbidea, lehenengo ereitean erabilitako nahasketa berberekin. Pausu hori egiteko, lehenik f) eta g) ataletako ekintzak egingo dira.

Esleipendunak behartuta dago urtero berrereiteko kontratuaren xedean sartuta dagoen berdegunetako soropil azalaren %10a, parke eta Lorategien Zerbitzuaren irizpideen arabera.

4.1. i) Ongarritzea

Badaude zuhaitzek, zuhaixkek, lorontziek eta soropilek lurretik eskuratu ezin dituzten mantenu-gai batzuk; horiek jaso ditzaten, ongarri organikoak edo mineralak erabiliko dira. Ongarri horien erabilera zuhaitzen, zuhaixken, lorontzien eta soropilen beharretara egokituko da, indartsuago eta ederrago haz daitezten.

Ongarri horiek eragin mantsokoak izango dira, eta udazkenean botako dira, bai eta, ezohiko baldintzak direla eta, ongarria botatzeko agindua idatziz jasotzen denean ere. Ongarria zuhaixka ugaridun guneeetan, zuhaitz-lerrokaduretan, heskaietan, lore-guneetan zein bizikorren inguruan botatzen denean, ongarria bota aurretik eremua jorratu egingo da. Ondoren, ureztatu egingo da.

Erabili beharreko dosia ongarri motaren arabera izango da. Kasu guztietan produktu komertzialak erabiliko dira eta fabrikatzailearen gomendioei jarraituko zaie.

4.1. j) Tratamendu fitosanitarioak.

Intsektu eta animalien izurriteen kontrako tratamenduak eta onddoak prebenitzeko tratamenduak dira, horien ugaritzeak eta ingurugiro-baldintzak lorategietan dauden landareentzako mehatxua direnean. Erabilitako produktuak arazo bakoitzerako egokienak izango dira eta, horien barnean, kalte gutxien eragiten dutenak erabiltzen saiatu beharko da, lorategia erabiltzen dutenentzat eta ingurumenarentzat mehatxua ez izateko.

Aldian-aldian, landareen ongizateari eragiten dioten izurriteak eta gaixotasunak aztertu beharko dira, eta horiek kontrolatzeko neurri egokiak aplikatu beharko dira. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Izurriteak eta gaixotasunak ugaritzea ekidin beharko da. Horretarako, ezinbestekoa izango da horiek saihesteko zaintza-lanak behar bezala planifikatzea eta exekutatzea.
- Pestizidak ahalik eta gutxien erabili beharko dira, borroka-plan integratu bati jarraituz.
- Produktuak erabiltzea beharrezkoa denean, ahalik eta toxikotasun gutxien dutenak erabiliko dira, eta oso toxiko gisa sailkatutako produktuen erabilera ekidingo da.



DERIOKO UDALA

Izurrite bat detektatzen denean, gehienez ere 7 egun naturaleko epean esku hartuko da. Aurretik, Udaleko zerbitzu teknikoari idatziz jakinaraziko zaio landa-osasunerako txosten baten bitartez. Bertan, formula (osaera, toxikotasuna, segurtasun-tartea eta merkataritza-marka), metodoa eta egoera bakoitzeko produktuaren dosifikazioa zehaztu beharko dira, zerbitzu teknikoak onetsi dezan. Tratamenduarekin bukatutakoan, berriro ere esku-hartzearen berri emango da, idatziz (trataturako landareak, emandako bolumena, aplikazioaren iraupena, eta abar). Horrekin batera, gertatutako gorabeherak (erabiltzaileekin arazoak, euria eta haizea egotea ala ez egotea, etab.) eta esku-hartzean parte hartu duten langileak aipatuko dira.

Ekintza horiek enpresako teknikariek gainbegiratu dituzte, eta herritarren jarduerari ahalik eta traba gutxien egiteko ordutegian egingo dira, ahal bada eskola orduetatik kanpo. Esku-hartze hori egin behar dutenek aipatu produktuak erabiltzeko eta emateko kualifikazio egokia izan behar dute.

Esleipendunaren ardura izango da edozein gaixotasun edo izurrite prebenitzeko tratamenduak gauzatzea, beharrezkoa den bakoitzean, egun egokietan. Horrez gain, gaixotasun edo izurriteren bat agertuko balitz, esleipendunaren ardura izango da horiek guztiz desagerrarazteko tratamenduak gauzatzea. Tratamendu horiek aplikatzerakoan, bitarteko, produktu eta prozedura modernoak, eraginkorrak eta ez-toxikoak erabiliko dira, eta tratamendu horiek ez diete trazarik eragingo ez pertsoneri ez izurritearen guneko animalia basatiei.

Tratamendua auzokideei enbarazurik ez egiteko orduetan gauzatuko da, betiere haizerik ez badabil.

Lizitatuak Izurriteak Kontrolatzeko Plan Integrala aurkeztu beharko du. Plan horretan tratamendua (prebentiboa, mekanikoa, termikoa eta biologikoa) xehetasunez azaldu beharko du, eta plana aintzat hartuko da esleipen-irizpideetan. Horrez gain, kasu bakoitzean erabiliko diren produktuak ere zehaztu behar dira. Tratamendua planaren arabera egingo da, baldintza klimatikoak egokiak direnean.

Nahitaez bete beharreko araudia

Kontuan hartu beharko da pestizidei buruzko nahitaez bete beharreko araudia. Hori dela eta, ezinbestekoa da enpresak eta pestizidekin lan egiten duten langileek arlo horretan esperientzia eta prestakuntza izatea, honako puntu hauei jarraikiz:

Enpresa kontratatzailea, hirugarrenen lurretan pestizidak erabili ahal izateko, EAEko Osasun eta Gizarte Segurantzaren Saileko eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Saileko establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofizialetan inskribatuta egon beharko da.

Lurzoruen kasuan, lurzoruen azterketa fisikoa eta kimikoa egingo da Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako laborategietan edo homologatutako beste laborategiren batean. Azterketa horiek tratamendu fitosanitarioei ekin aurretik egin beharko dira, eta helburua da lurrazalaren egoerari buruzko diagnostiko zehatza eskuratzea.

Zerbitzuaren kudeatzaileak, mantentze-lanak egiteko kontratatutako enpresako arduradun gisa, produktu fitosanitarioak erabiltzeko txartela izan beharko du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Kontseiluaren 2006ko abuztuaren 21eko



DERIOKO UDALA

AGINDUari jarraikiz. Agindu horrek arautu egiten ditu nekazaritzarako pestizidekin tratamenduak egiteko akreditazioa eta prestakuntza, eta ikastaroak antolatzeke, homologatzeko eta baliozkotzeko arauak ematen dira.

Pestizidak erabiltzeko langile arduradunak egiaztatu behar du landareak babesteko horien prestakuntzan eta aplikazioan esperientzia duela. Gainera, tratamendu fitosanitarioak manipulatzeko agiriaren jabe egon behar da. («oinarrizko maila »).

4.2. artikulua: Kanpoko lorontzien eta barruko landareen kontserbazioa.

Barruko landareak mantentzeak honako lanak izango ditu:

- a) Ureztatzea eta garbitzea.
- b) Hileko garbiketa.
- c) Begi-berrikustea eta ordezkapen-plana.
- d) Ongarritzea.
- e) Substratua jorratzea eta bergizentzea
- f) Substratu berria jartzea.
- g) Tratamendu fitosanitarioak.

4.2. a) Ureztatzea eta garbitzea.

Behar den beste maiztasunarekin urte-sasoia araberaren ureztatuko dira landareak. Gutxienez hamabost egunero, aldi berean kenduko dira lorontzietan irten daitezkeen belarrak, gauza arraroak, hostoak eta/edo landare hilak.

Zehazki lorontzietarako:

Eskuz eta banan-banan egingo dira, modu unitarioan eta eskuz egingo da. Erabiliko den ahokoak ez dio lurrari trinkotzen utziko, ez eta substratuari apurtzen ere, turrustak lurra jotzen duenean. Horrez gain, jarioaren maiztasuna nahikoa izan beharko da bertako landarearen sustrai-sistema behar bezala garatzeko besteko hezetasuna lortzeko.

Ureztatu aurretik, jorratu egin beharko da. Horrez gain, hezetasuna mantentzeko eta hobetzeko elementuak ere erabili ahal izango dira, besteak beste hezetzailak eta silikona hidroskopikoak.

4.2. b) Hileko garbiketa

Hilero hautsa kenduko zaie hostoei eta lorontziei, eta gero landareak tratatuko dira Ureztatu aurretik, jorratu egin beharko da. Horrez gain, hezetasuna mantentzeko eta hobetzeko elementuak ere erabili ahal izango dira, besteak beste hezetzailak eta silikona hidroskopikoak.

4.2. c) Begi-berrikustea eta ordezkapen-plana.

Hilean behin, esleipendunaren zerbitzu teknikoek Udalekoekin batera, barruko landareak ikustatuko dituzte, ornamenturako egoera txarra dutenak identifikatuz. Horiek kenduko dira esleipendunaren pentzura 7 egun naturaleko epean.



DERIOKO UDALA

Landareak ordezkaturako dira kontratistaren pentzura behar hainbeste, euren funtzio estetiko mantentzeko.

4.2. d) Ongarritzea

Hilero, hostoetako eta lorontzietako hautsa kendu beharko da eta, ondoren, landareei produktu egokiak emango zaizkie, horien edertasuna nabarmentzeko.

Ongarria bota aurretik aurretik, azalera zigilatu beharko da.

4.2. e) Substratua jorratzea eta bergizentzea

Urtean bitan, lorontzietako goiko aldeko substratua kenduko da, sustraiak kaltetu gabe. Halaber, aurrez Udaleko zerbitzu teknikoak onartutako kalitate oneko substratu erabili gabea jarriko da, lorontzi bakoitzeko neurri arruntera iritsi arte.

4.2. f) Substratuak aldatzea.

Horretarako, 7 egun naturaleko epea izango du. Epe horretan ez badu ordezkatu, ulertuko da landareei ez zaiela mantentze-zerbitzu egokia eman.

4.2. g) Tratamendu fitosanitarioak.

Esleipendunak arreta berezia emango dio landareetan izurri eta hongoen eraginari, erabiltzaileengan hurbiltasunagatik.

Prebentzio-neurri gisa, eta onddoak agertzeko baldintzak hobeak diren egunetan, esleipendunak onddoen kontrako prebentzio-tratamenduak emango ditu, bai aire-guneetan bai substratuetan.

Hala ere, prebentzio tratamenduak egin eta izurriteren bat ikusten bada, aritu behar da ahalik eta lasterren, inoiz 7 lanegunetik gora.

Edozein jarduketa betetzeko kontuan hartuko dira 4.1. j. artikuluan jasotako arauak eta prozedurak.

4.3. artikulua: Landaketen kontserbazioa.

Landatzetan joko dira lorategian dauden landare guztiak, urbanizazioetako zuhaitz-txorakoak, txorke jarraituak, soropiletako zuhaitzak eta zuhaixkak, banatzeko heskaiak, barneko lorontziak edo zoru mineraleko kanpoko landareetako lorontziak, eraikinen inguruetako lorategiak, oraindik landatu gabeko lorategi guneak baina belar txarrak kontrolatu beharreko guneak, eta abar. Laburbilduz, inbentarioan jasotako guneak eta soropiltzat edota barneko landaretzat jo ez diren guztiak.

Landatzeen artatze-lanen barruan ondorengo esku-hartzeak daude:

4.3.1. Ureztatzea



DERIOKO UDALA

Landare elementuak ureztatuko dira behar den maiztasunarekin, baldintza klimatikoaren arabera y dauden betekizunen arabera. Esleipendunak ahaleginak egingo ditu landare-elementu guztiek lurzoruan aurki dezaten hazteko behar duten beste ur. Ureztatze egutegia jarriko da urteko eta hileko Plangintzarako Udaleko zerbitzu teknikoek ikusi ondoren, eta hilabetea hasi aurretik aurkeztuko da.

Instalazio finko bat dago, bai ihiztagailuz bai ureztatze lokalizatuz zona ezberdinetaraino. Ureztatzearen instalazioaren mantentzea eta kontserbatzea da adjudikaziodunaren betebeharra. Hau arduraduna da irregulartasunak zaintzeko eta konpontzeko. Beraz, sisteman dauden akats guztiak, baldin eta ur-hornidura ezagatik ez badira, emakidunak ordezkatzeko ditu, eta ez du eskubiderik izango kontratuaren prezioa igotzeko.

4.3.2. Zuhaitzak inaustea.

Edozein zuhaitz kimatzeko, babes-ekipo egokiak erabiliko dira; ekipo horiek enpresa esleipendunak eskaintzarekin batera aurkeztutako laneko arriskuen planean zehaztu beharko dira.

Zuhaitzen inausketa lanak egingo dira kasu bakoitzean Udaleko Zerbitzu Teknikoak jartzen dituen kontuan hartuta espezei bakoitzaren arabera, tokiaren arabera eta zirkunstantziaren arabera, bati arau hauen menpean:

4.3.2. a) Inausketen maiztasuna.

Beharrezkoa izango da gutxienez urtean behin kimatzea, zuhaixkak-eta ondo eratzeko.

4.3.2. b) Neguko inausketa landareen etenaldian.

Zuhaitz bakoitzaren ohiko hazkuntzarako egokiro jarrita ez dauden adarrak kimatuko dira. Halaber, pisuagatik edota lekuagatik arriskutsuak izan daitezkeenak eta zirkulazioa eragozten dutenak edota seinaleei eta inguruko eraikinei eragozten dietenak ere kimatuko dira. Apurtutako zein printzatutako adarrak edota gaixotasunak jota daudenak ere kendu egingo dira, gehiago apurtzen badira erabiltzaileak kaltetu baititzaizakete. Gainontzeko adarrak ez dira ukituko, eta zuhaitz bakoitzari dagokion forma eta tamaina hartzen utziko zaio. Traba egiten duten fruituak kenduko dira, baina ez estetikoak direnak.

Kimatetik sortutako hondakinak bildu eta garraiatuko dira, eta laneguna bukatu ostean ez da hondakinik utziko.

Esku-hartze hori bai hosto erorkor bai iraunkorretako zuhaitzetan egingo da, garapenak horrela eskatzen duen kasuetan. Baliteke, beraz, zuhaitz guztietan egin behar ez izatea. Esku hartzeko edo ez hartzeko irizpideak Udaleko Zuzendaritza Teknikoak ezarriko ditu. Azkenik, kimatzea bertan dauden espezieei kalterik ez egiteko datetan egingo da.

4.3.2. c) Emergentziako inausketa.

Apurtutako edo printzatutako adarren bat antzematen bada, eta ikusten bada hori oinezkoentzat arriskutsua dela edo horrek kable elektriko, telefoniko, semaforo, eraikin, trafiko, kartel, seinale eta abarrei traba egiten diela, edota ezbeharrez zuhaitz bat irauli bada, hori konpontzeari emango zaio lehentasuna, beste edozein lanen gaineratik, eta berehala ekingo zaio arazoa konpontzeari.

Aldi berean, eragiketa hau da jasotzea eta kentzea.



DERIOKO UDALA

4.3.2. d) Mozketen forma.

Kendu beharreko adarraren oinarrian egin behar dira mozteak, zauria geratzen den adarraren arrasean utziz. Ez da kanporago irtengunerik utzi behar, horiek lehortzean zolduragune bilakatzen direlako eta orbaintzea eragozten dutelako. Adarra mozteagatik geratzen den zauria adarraren luzera-norabidean egin behar da, ertzetan finagoa izanik, begite forma edukitzeko. Landareen izerdia luzeran eta cambiumarekiko paraleloan mugitzen denez, berau zakarki eteteak (adarra moztuta, esaterako) zirkulazioa mozten du eta mozketa-tokiaren ingurunea (gainean eta azpian) hiltzea eragiten du. Zauriari begite forma emanez, aldiz, izerdia aldeetan barreiatzea lortzen da; horri esker, heriotza ekiditen da eta zauria hobeto orbaintzen da.

4.3.2. e) Adar handien inausketa.

Adar handiak ez dira kimatu behar. Baina Udaleko zerbitzu teknikoak horrela erabakita beharrezkoa balitz kimatzea, hiru mozketa-aren arauari jarraituko zaio.

Adarraren azpitik lehenengo mozketa egingo da, urkilatik adarraren diametroaren luzera bikoitza adierazten duen tartean (gutxi gorabehera), gero eta sakonago eginez, harik eta zerrak atzerantz egin arte. Orduan, azken mozketa egingo da goitik behera, urkilatik adarraren diametroaren luzera bikoitza edo gehiago adierazten duen tartean. Behin adarra moztutakoan, irtengunea kendu behar da enborraren arrasean hirugarren ebaki bat eginez.

4.3.2. f) Zaurien tratamendua.

5 cm-tik gorako zaurietan pintura babeslea eta orbaintzailea emango da, onddoak eta intsektuak ez sartzeko eta, horrela, azalaren birsorkuntza-prozesua arintzeko. Lan hori egiten den bitartean, berriro estali beharko dira aurreko mozketatik estali gabe geratu diren ebakiak, bai eta denboraren poderioz estalkian kalteak jaso dituzten ebakiak ere.

Kimatzearen ostean esku-hartze hau ez egiteak esan nahiko du kimatze-prozesua ez dela bukatu.

4.3.3. Heskaiak moztea

Zuhaixkak eskuz ala makinaz ebakiko dira, espeziearen arabera behar bestetan, goiko eta alboetako profilak mantentzeko eta kimu berriak gainetik ez ateratzeko.

Hondakinak zuzenean bildu eta kenduko dira egunero.

Udaleko zerbitzu teknikoak ezarriko du hazkundera kontrolatu behar den ala ez. Kontrolatu behar izatekotan, zenbatean behin ebaki behar den ere zehaztuko du. Edozein kasutan, egungo marraketa berbera mantenduko da (beste ezer adierazten ez den bitartean) eta hainbat arrazoi direla medio egon daitezkeen hondaketak ala aldaketak zuzendu egingo dira.

4.3.4. Zuhaixken estutzea

Zuhaixken garapenak eskatzen duen maiztasunarekin, adar ahulegiak edo indartsuegiak, kimuak txarto orientatuta dituztenak edota hazteari utzi diotenak kendu beharko dira. Esku-hartze horien helburua da txorko jarraituko zuhaixken ertzak mantentzea, oinezkoen joan-



DERIOKO UDALA

etorriak eragotzi gabe, helburu estetikoak baino haratago hazten utzi gabe eta landareei alde zuzenetik zehaztutako forma artifizialak eman gabe.

Irizpide berberak ezarriko dira parterretako gainontzeko zuhaixketan, nahiz eta horiei tamaina handiagoa edukitzean utzi. Halaber, zuhaixken adarrak lotu beharko dira, gurutzatu gabe; eta zuhaixka bakoitzaren bolumenen arteko orekari eutsi beharko zaio.

Gutxienez, hiru esku-hartze eskatuko dira urtero. Oro har kimatzeen helburua da estetika-mailarik handiena lortzea, espeziearen ohiko egitura mantentzea eta landare-potentziala kontrolatuz adar berriak ateratzea sustatzea. Udaleko zerbitzu teknikoak zehaztuko du kimatzearen garaia eta intentsitatea, betiere kontuan hartuta landareek bat egin behar dutela garatzeko duten espazioaren beharrek.

Bestalde, gaixotasunak edo lesioak jota dauden adar guztiak kenduko dira. Mozketa guztiak modu garbian egingo dira motzondorik edota adar hautsirik utzi gabe. Sortutako hondakin guztiak egun berean bildu eta kenduko dira.

4.3.5. Denboraldiko loreak.

Denboraldiko loreak dira 6 hiletik beherako ornamentu ziloka dutenak.

Denboraldiko lore multzoak urtean birritan aldatuko dira eta Udaleko zerbitzu teknikoak erabakiko du noiz egin behar den aldaketa eta zein espezie eta aldaera landatuko den denboraldi bakoitzean dauden loreen artean.

Loreak landatu baino lehen, aurreko landareak errotik atera, hondoa hustu, tarte-aitzurtzea egin, simaur-ongarria bota, eragin mantsoko ongarriak bota eta gainazala eskuareaz pasatuko da.

Landaketa-dentsitatea landatu behar den espeziearen arabera eta Udaleko zerbitzu teknikoak adierazitakoa izango da. Landareak loreontzietan egongo dira, loraldiarekin hasteko prest.

Astero hosto lehorrak, lore zimelak eta modu naturalean loreen artean agertzen diren belarrak kenduko dira.

4.3.6. Tratamendu fitosanitarioak

Edozein eragiketa gauzatzeko kontuan hartuko dira 4.1. j. artikuluan adierazitako arauak eta prozedurak.

4.3.7. Jorratze kimikoak.

Belar txarrak herbizida egokien bitartez kendu beharko dira (larrialdi unea baino lehen eta ondoren, hosto zabaletan zein estuetan). Lan hori landatu gabeko lurretan egingo da, belar arrotzek lur horien itxura eta erabilera kaltetzen dituztenean. Hauxe da lurzorua mantentzeko erabiliko den modu orokorra.

Larrialdi unea baino lehen eta landareen altuerak hondakinak utzi baino lehen egingo da. Maiztasuna erabilitako produktuen eta lurzoruari eman zaion erabileraren arabera izango da. Tratamenduak emateko egutegi egokian atzerapena badago (bai aplikazio akastunagatik,



DERIOKO UDALA

bai produktuaren erabilera akastunagatik) eta lorategien estetika kaltetzen duten belar txarrak agertzen badira, esleipendunak eskuz kendu beharko ditu belar txar horiek edota horien hondakinak, eta zabortegira eraman.

Erabilitako produktuak kokaleku bakoitzerako egokienak eta kontrolatu beharreko belar arrotzen araberakoak izango dira. Horien barnean, kalte gutxien eragiten dutenak erabiltzen saiatuko dira, lorategia erabiltzen dutenentzat eta ingurumenarentzat mehatxua ez izateko. Baldin eta horrelakoak badaude, beti aukeratuko dira produkturik selektiboena eta eraginkorrenak, larrialdi unea baino lehenago erabili beharrekoak.

Urbanizazioko lur-gainazaletan egindako aplikazioez gain, sendagarri izaerarekin tratatuko dira zoladuretako belarrak. Kainu-zulo, zoladura-arrakala, ertz eta gainontzeko lekuetako belar arrotzak, nahiz eta berdeguneak ez izan, horien hazietatik datoz, haizeak lorategietatik mugitzen dituelako. Horiexek lorategi-guneetako efektu estetikoan kalte handia eragiten dute, belar arrotzik ez badago ere.

Esku-hartze horiek guztiak enpresako teknikarien taldeak gainbegiratuko ditu eta hiritarren jardueretan ahalik eta traba gutxien egiteko ordutegian egingo dira. Esku-hartze hori egin behar dutenek aipatu produktuak erabiltzeko eta emateko kualifikazio egokia izango dute, eta horrela dela egiaztatu beharko dute Udaleko bulegoetan. Udaleko zerbitzu teknikoak begiz ikusten duenean belar arrotzak ugaritu direla, gehienez ere 7 egun naturaleko epean esku hartuko da.

Edozein esku-hartze baino lehenago, Udaleko zerbitzu teknikoari idatziz jakinaraziko zaio landa-osasunerako txosten baten bitartez. Bertan, formula (osaera, toxikotasuna, segurtasun-tartea eta merkataritza-marka), metodoa eta egoera bakoitzeko produktuaren dosifikazioa zehaztu beharko dira, zerbitzu teknikoak onets dezan.

Tratamendua bukatutakoan, berriro ere esku-hartzearen berri emango da, idatziz (trataturako landareak, emandako bolumena, aplikazioaren iraupena, eta abar). Horrekin batera, gertatutako gorabeherak (erabiltzaileekin arazoak, euria eta haizea egotea ala ez egotea, etab.) eta esku-hartzean parte hartu duten langileak aipatuko dira. Tratamenduak haizerik gabeko egunetan eta orduetan egingo dira, eta kontu handiz egingo dira, bereziki, belarki-landareen edo zuhaixka baxuen inguruko aplikazioak.

Gainera, kontuan izan beharko dira herbizidak txarto erabiltzeagatik sortutako kalteak. Horiexek enpresa esleipendunaren ardura izango dira.

4.3.8. Eskuko jorrapenak.

Zuhaixka, lore-landare, tapizatze eta, oro har, lorategi-gunean hazitako belar txarrak errotik ateratzean eta garbitzean datza lan hau, belar txar horiek beste moduren batean kontrolatu ezin direnean. Esku-hartze hau bi hilabete behin egin beharko da, belar txar horiek gehiegi ez hazteko.

4.3.9. Arrastelatzea.

Gutxienez, lau urtean behin lorategi-gunearen gainazala osorik eskuarekin pasatu beharko da, landare-hondakinak eta hondakin ez-organikoak kentzeko, baita 2 cm baino handiagoak diren harriak eta lanetako hondakinak kentzeko ere.



DERIOKO UDALA

Esku-hartze horren barruan daude zuloak eta lur-tontortxoak kentzea eta, oro har, berdeguneetako edozein aldaketa.

Lan hori egitean, lurrazalean ahalik eta gutxien zulatzeko ahalegina egin behar da; izan ere, zulatzerakoan belar txarren kontrako oztopo kimikoak kentzen dira. Horrez gain, kontu handia izan behar da lur azpian zein gainean dauden ureztapen-instalazioetan kalterik ez eragiteko.

Ateratako hondakinak kontratistak berak kendu eta zabortegira eraman beharko ditu.

Esku-hartze hori puntuala denez eta data zehatzik behar ez duenez, esleipendunak betearazpena programatuko du gainontzeko zereginek horretarako denbora nahikoa ematen diotenean.

4.3.10. Garbiketa orokorra.

Udalerriak badu bideak garbitzeko zerbitzua, beraz, ez da batere ohikoa lorategietan hauei ez dagozkien hondakinak agertzea. Edonola ere, etengabe garbituko dira artatu beharreko berdeguneen perimetroaren barruan dauden gainazalak.

Lan hori kontratu honen xede diren guneeetako landare-hondakinak zein zaborrak eta zaramak kentzean datza, betiere lorategi-gune horretan bestelako esku-hartzeren bat egiten ari badira.

Edozein kasutan, garbiketa ez da soilik bere esku dagoen gainazala eskobatzea, hondakinak biltzea eta pilatzea izango; horrez gain, bildutako hondakin horiek guztiak kendu eta baimendutako zabortegi batera eraman beharko dituzte. Hondakinak zabortegira eramateko lanak esleipendunaren kargura eta haren baliabideekin egingo dira.

Garbiketa behar bestetan egingo da, berdeguneak beti garbi egon daitezen.

Udazken sasoiari ahalegin handiagoa egingo da hostoak biltzeko.

Bukatzeko, zerbitzu hori beste mantentze-ekintza batekin batera ematen denez, horren barruan dagoela ulertzen da, eta ondorioz, ez da bereiz baloratuko.

4.4. artikulua: Udal bideetan sasiak kentzea.

1. eranskinean eta 4. eranskinean ageri den planoan Derioko udal-bideen inbentarioa ikus daiteke, bai eta alde bakoitzaren zabalera eta luzera ere. Esleipendunak bide horiek baldintza onetan izan beharko ditu. Horretarako, bide horien ertzetako sastrakak garbituko ditu eta landatu gabeko gainazaletan hazitako belar txarrak eta bere kasa hazitako landareak kenduko ditu. Horrez gain, ildaskak beteko eta konpaktatuko ditu.

Bideetako sastrakak kentzeko zerbitzua urtean bitan egingo da, udaberrian eta udazkenean. Lana honetan datza: bidearen alde bakoitzean gehienez ere hiru metroko sakoneran sastrakak kentzea. Horretarako, beso artikulatudun sasi-garbitzeko makina automatikoa erabiliko da; hala ere, beharrezkoa balitz, lana eskuz bukatuko da hesietan, ertzetan, seinaleetan, zuhaitz guneeetan eta abarretan.



DERIOKO UDALA

Lan hori araudiari jarraituz seinaleztatuko da.

Lizitatzailleek, proposamenean, lan hori egiteko erabiliko diren ekipoak eta baliabide materialak zehaztu beharko dituzte.

4.5. artikulua: Bestelako jarduketak

Lorategi-guneetako mantentze-, berriztatze-, garbiketa- eta hobekuntza-lanen zerbitzuaren osagarri gisa Udaleko zerbitzu teknikoak honako lan hauek egiteko ere eska dezake, egun zehatzetan: Lanak udalerriko gainerako guneen mantentze-lan orokorren kanonean sartuta daude.

4.5.1. Gabonetako zuhaitzak

Gabonetan, hainbat zuhaitz jarri beharko dira. Hauek dira jar daitezkeen zuhaitzen espezieak: *abies*, *picea*... Zuhaitz horiek Gabonek iraun bitartean egon beharko dira jarrita, Udalak adierazitako tokian. Gehienez ere 4 jarri beharko dira.

4.5.2. Zuhaitz eguna

Zuhaitzaren Egunaren edo Euskararen Egunaren omenez, edo jardueraren izaera dela eta zuhaitzak landatzea eskatzen duen beste edozein ekitaldi egiten denean, esleipenduna lurra prestatzeaz eta udal-lurretan zuloak egiteaz arduratu beharko da, herritarrek zulo horietan zuhaitz autoktonoak landatu ditzaten. Halaber, zuhaitzak landatu ondoren, esleipendunaren lana izango da eremu hori baldintza egokietan uztea.

Kontratatistak 3.000 euroko balioa (BEZa barne) duten zuhaitz autoktonoak hornituko ditu urtero aipatu ekimenetan erabiltzeko. Horrez gain, indarrean dagoen urtean moztu behar izan diren zuhaitzen kopuru baliokidea ere hornituko du.

4.5.3. Ekitaldi publikoak

Derioko Udalak egiten dituen jendaurreko ekitaldietan, enpresa kontratatistak apaintzeko beharrezkoak diren landareak (lorontzietan) emango ditu, Udalak horrela eskatzen duenean. Ekitaldiak bukatu ondoren, esleipendunak landareak berreskuratu ahal izango ditu.

4.6. artikulua: Txarto eginda edo egin gabeko lanak

Udaleko zerbitzu teknikoaren arabera beharrezko lanen bat egiten ez denean edota modu desegokian egiten denean, hileko kanonetik esku-hartze horri dagokion kopurua kenduko zaio esleipendunari.

Plegu honetan zehazten diren esku-hartzeen betearazpenean berandutzea dagoenean bidezko arrazoirik gabe, Udalak lan horiek beste enpresa bati eman ahal dizkio, edo Udalak berak egin. Horrela, hilerok jaso beharreko kopurutik ondorengo kantitateetatik altuena kenduko zaio esleipendunari:



DERIOKO UDALAK

- Horrek Udalari ekarriko dion kostua
- Lan horiengatik esleipendunak eskainitako prezioen araberako kopurua.

Esku-hartzeak zehaztutako epean ez egiteak eta aurreko paragrafo bietan zehaztutako lanen kalitatea ezegokia izateak, kontratua ez betetzeagatiko zigorrak ezartzea ekar dezakete.



DERIOKO UDALA

V. KAPITULUA

LANAK EGITEA.

5.1. artikulua: Kontratatisten betebeharrak

Kontratatisten zeregina izango da kontratu honetan xedatutako artatze-lan guztiak eta Udaleko zerbitzu teknikoak agindutako guztia ondo joateko bere eskuetan dagoen guztia egitea.

5.5. artikuluan zehazten diren lanei buruzko jakinarazpenak egiteaz gain, kontratista esleipendunak estatistika eta kontrolerako datuak, txostenak eta ziurtagiriak eman beharko dizkio Udalari, hark eskatzen badizkio, kontrata eta zerbitzua bera ondo doazen egiaztatzeko.

Halaber, lorategietan topatzen dituen kalteak salatu beharko ditu, eta dokumentuen bidez frogatu (ahal izanez gero, dokumentu grafikoaren bitartez). Gainera, zerbitzu teknikoari jakinarazi beharko dizkio kontratatutako guneetan egin beharreko lanak. Bestalde, edozein arrazoiengatik hilda agertzen diren landareen berri emango dio Udalari, dokumentuen bitartez, eta horietan azaldu beharko du zeintzuk izan diren horretarako ustezko arrazoiak.

Kontratatistak faltan zerrenda edukiko du udaletxean, horien kokapen zehatza azalduz.

Azkenik, kontratatisten esku egongo da kontratatutako zerbitzu guztiak era egokian betearaztea. Hori dela eta, betearazpen ezaren aurrean ezin izango du justifikazio bezala azaldu hirugarren pertsonekin edota bere langileekin duen harremanen ondorioz sortutako arazoak direla.

Esleipendun enpresak kontratuaren barnean dauden elementu guztiak gainbegiratu beharko ditu, eta bere gain egongo da edozein akats, izurrite, etab. geldiaraztea eta horiek garaiz ez antzematearen ondorioz sor daitezkeen arazoak konpontzea. Kontratatistak akats horiek plegu honetan xedatutakoaren arabera konpondu beharko ditu, Udalak inolako eskakizunik egiteko beharrik ez duela.

Oro har, plegu honetan xedatutako esku-hartzeak betearazteko epea 7 egun naturalekoa izango da, berau arrazoitzen duen gorabehera ematen den momentutik aurrera zenbatzen hasita (soropilaren altuera, heskaiaren altuera, tratamendu bat eman behar izatea eta abar).

Lan batzuk berehala egin beharko dira, atzeratzeko aukerarik izan gabe. Esku-hartzearen berehalakotasuna baldintzatzeko irizpideak hauexek izango dira: ur-ihes handiak egotea, ureztapena egitea galarazten duten matxurak egotea, ureztapena ez egiteak landatutako espeziei kaltea egitea, bizilagunentzako edota ondasun higiezinentzako arriskua egotea, etab. (ikus 5.3 artikulua).

Enpresak Udalari proposatu ahal izango dio lanak betearazteko tartea handitzea, betiere arrazoituta eta eskari horrek betearazi behar diren lanetan etena egotea ez badakar.

5.2. artikulua: Kalitatearen kudeaketa sisteman eta ingurumena

Lanak bikaintasun irizpideen arabera egiten direla, ingurumena errespetatzen dela eta lanak gauzatuko dituzten langileen segurtasuna egokia dela bermatzeko, lizitatzailak beharrezko



DERIOKO UDALA

ziurtagiriak izan beharko ditu. Ziurtagiri horiek akreditazioadun enpresa batek eman behar dizkio, eta arau hauei buruzkoak izango dira:

- ISO 9001
- ISO 14001

5.3. artikulua: Urgentzia eta larrialdietako zerbitzuak

Berehala egin behar diren mantentze-lanak gauzatzeko eta larrialdi-zerbitzua emateko zerbitzu bat da, esleipendunaren irizpideak zehazten duenaren arabera. Sortu den premiaren edo larrialdiaren motaren arabera izango da, eta beti izan beharko du Derioko Udalaren oniritzia.

Esleipendunak telefono bat eman beharko du, asteko egun guztietako 24 orduetan aurkitzeko moduan egoteko eta premiazko matxuretan edota larrialdietan berehala esku hartzeko.

Enpresak Udalaren esku jarriko du nekazaritzako ingeniari tekniko arduradun bat. Ingeniari hori 6.1.a artikuluan deskribatutako ordezkaria izango da eta eguneko 24 orduetan aurkitzeko moduan egon beharko da, premiazko egoerei edo larrialdi-egoerei erantzuteko eta egoera horiek behar bezala kudeatzeko.

Esleipendunak premiazko izaera eta larrialdi-izaera duten zerbitzuak artatu beharko ditu eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, asteburuak eta jaiegunak barne, eta Udalak ez du horren truke gehiago ordaindu beharrik izango. Hori dela eta, lizitatuzaileek zerbitzukoak ez diren langile laguntzaileen eskuragarritasuna aurreikusi beharko dute premiazko eta larrialdi-egoeretakako edo noizbehinkako beharrei erantzuteko, ohiko lanorduetatik kanpo. Udalak ez du horren truke gehiago ordaindu beharrik izango.

Aipatu premiazko eta larrialdi-egoerei dagozkien salaketek eta zerbitzuek behar bezalako arreta eta erantzuna ez jasotzeak eragin ditzakeen ondorioak enpresa esleipendunaren ardura izango dira oso-osorik, eta akats larritzat hartuko dira.

5.3.1. Berehalako ekintzaren (urgentziak) mantenamendu zerbitzua

Zerbitzu horrek barne hartzen du aurreikusi ezin diren gorabeherak berehala konpontzea. Gorabehera horien konponketa beharrezkoa izango da, baina ez du larrialdi-zerbitzu izaerarik izango.

Zerbitzu horri erantzuteko, esleipendunak hainbat lan gauzatzeko gai diren ekipo bizkorak izan beharko ditu, eskaini beharreko zerbitzuak askotarikoak izango baitira. Talde horien giza baliabideak, baliabide mekanikoak, tresnak eta lanabesak eskaintzan adierazi beharko dira.

5.3.2. Larrialdietarako zerbitzuak (sekulakoak, aldizkakoak eta besteak)

Derioko Udaleko zerbitzu teknikoak proposatuko ditu egin beharreko larrialdi-lanak. Larrialdi-zerbitzuak barne hartzen ditu honako hauei aurre egiteko jarduketak: uholdeak, lur jauziak, elurteak, ekaitzen, haizearen edo beste ezohiko gertakari batzuen ondorioz arriskutsuak diren zuhaitzak moztea, zuhaitzaren egoera txarrarengatik premia handiz jokatzeko ezinbestekoa denean, edo beste batzuen jarduketek eragindako kalteak konpondu behar direnean, horrek herritarrei kalte handia eragin diezaiekeenean, udalerrian trabak eragin



DERIOKO UDALA

ditzakeenean edo ekitaldi publikoen ospakizunetan eragin sakona izan dezakeenean, segurtasun, aukera edo bestelako arrazoi batzuk direla medio, Udaleko agintarien iritziz.

Lizitazio honen enpresa esleipenduna arituko da derrigorrez eta gehiengo urgentziaz gertatzen direnean, baita larunbat, igande eta jai egunetan, euren lan egoera edozein izanik.

5.3.3.Lan aginduak

Urteko Lanen Planean edo Hiruhileko Jarduketan Planean aurreikusi ez diren lanak egiteko, edo premiazkoak zein larriak direlako berehala eman behar diren zerbitzuak emateko, Derioko Udala esleipendunaren ordezkariarekin harremanetan jarriko da telefono, fax edo mezu elektronikoz bidez, egin beharreko lanaren nondik norakoak azaltzeko. Horrez gain, lana non egin behar den, zenbateko premia duen, noiz hasi behar den eta noiz bukatu behar den ere azalduko du, beharrezkotzat jotzen duen kasuetan.

5.4. artikulua: Jagotza

Oro har, kontratu honen barruan sartutako gune guztietan, esleipendunaren gain egongo da zuhaitziek bide publikoetan eragin dezaketen arriskua kontrolatzea eta zaintzea. Horretarako, titulazio egokia duten langile teknikoek laguntza izango du. Adarrak arriskutsuak diren momentuan bertan moztu eta kendu beharko dira. Arriskua zuhaitz batek eragiten badu eta arriskua hur-hurrekoa ez bada, Udalarik eskatuko dio mozteko eta kentzeko baimena. Arriskua hur-hurrekoa bada, Udaleko segurtasun-zerbitzuari jakinaraziko dio eta hark, egoera islatzen duten argazkiak atera ondoren, berehala botako du edo gunea lokarritik hesituko du, oinezkoak eta ibilgailuak gerta daitekeen erorketatik babesteko.

Esleipendunaren ardura izango dira adarren eta zuhaitzien apurketak eragindako kalteak, horiek ezinbestean gertatu ez badira.

Edozein motatako ezbeharrak eta kalteak ez sortzeko neurri egokiak hartuko ditu kontratistak, bera baita horien erantzulea. Horretarako, kontuan izango ditu Estatuko legedi orokorrak eta Udalak ezarritako arauak.

5.5. artikulua: Hondakinak kudeatzea

Esleipendunak kontserbazio lanengatik sortutako hondarrak kenduko ditu egunero. Horretarako baliabideak izango ditu hondarrak batzeko eta garraiatzeko. Eragiketa hau eskaintzaren prezioaren barruan egongo da. Hondakinak berdeguneetatik kentzeko, ez dira erabiliko erdigunean zerbitzu orokorra egiteko ibilgailu berberak, eta langileak ere ez dira berberak izango, mantentze-lana ez oztotzeko.

5.5.1. Berdeguneen ohiko garbiketarako sortutako hondakinak

Berdeguneen garbiketarako eratorritako hondakinak errefusa izango dira eta berdegunetik hurbilen dauden lur azpiko zein lur gaineko edukiontzietara bota ahalko dira, hondakin gutxi dagoen kasuetan. Hondakinak udalerrian dagoen edukiontzira bota ahal izango dira, eta kontratistak zuhur ibili beharko du hauek husteko orduan, hondakinek gainezka ez egiteko eta edukiontzia ingurua garbi egoteko.



DERIOKO UDALA

Lanegunaren bukaeran, bide publikoa garbitu beharko da, nola eskuz hala haizagailuarekin, eta ezin izango dira hondakinak bide publikoan utzi laneguna bukatzean. Halaber, bide publikoan erratza pasatu beharko da, sortutako hondakin guztiak garbitzeko.

Aurreko premisak kontuan hartu ezean, Udaleko zerbitzuak berak egin ditzake lan horiek, baina esleipendunari kargatuko zaizkio, kontratua ez betetzeagatik eragingo dituen erantzukizunetan eraginik izan gabe.

5.5.2. Berdeguneetako lorezaintza mantentzeko lanengatik sortutako hondakinak

Hondakin horiek barne hartzen dituzte bai lorategien mantentze-lanetan beren-beregi sorturiko hondakinak (landare-hondarrak, produktu fitosanitarioen hondarrak etab.) bai instalazioetan, ibilgailuen zein makinaren mantentze-lanetan eta bestelakoetan sorturiko hondakinak (esate baterako, fluoreszenteak, pneumatikoak, olioak eta abar). Esleipendunaren ardura izango da hondakin horiek jasotzea, garraiatzea eta dagokion kudeatzaileari ematea. Zehazki, kimaketaren, segatzearen eta abarren hondakinak konpost-fabrika baten bitartez kudeatuko dira.

Bestalde, kontratistak baimendutako zabortegia eduki beharko du, artatu beharreko guneetako hondakinak botatzeko edota, beharrezkoa balitz, horiei eman beharreko tratamendua justifikatzeko. Zabortegia kontratistarena berarena ez bada, bere kabuz kontratatu beharko du funtzionamenduan dagoen zabortegi kontrolaturen bat, hondakinak bertan botatzeko.

Esleipendunak Udalari jakinarazi beharko dio zein den kontratatutako zabortegia eta, gainera, kontratuaren kopia edota ziurtagiria eman beharko dio.

Hondakin materialak behar bezala kudeatzen direla egiaztatzeko, Derioko Udalak esleipendunari eskatu ahal izango dizkio hondakinak behar bezala kudeatu izana frogatzen duten ziurtagiriak. Ziurtagiri horietan honako hauek agertu beharko dira, gutxienez: produktua non bota den edo kudeaketa-zentroa zein den (zentro hori EAEko hondakinen ekoizleen erregistroan agertu beharko da), hondakinak noiz jaso diren, zer motatako materiala jaso den eta zenbat material jaso den. Hondakinak tratatzeko zentroek Administrazioaren bermea izan beharko dute eta, ondorioz, kasuan kasuko Administrazioak egindako zerrendan agertu beharko dira.

Kontratistaren ardura izango da bere jardueren ondorioz sorturiko hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzea.

5.5.3. Hondakinak kudeatzeko plana

Lizitatzailleek Hondakinak Kudeatzeko Plana aurkeztu beharko dute. Plan horretan azaldu beharko dute plegu honen xede den zerbitzua ematerakoan sortuko diren hondakinak kudeatzeko metodologia zein izango den. Besteak beste, hondakin organikoen, inorganikoen eta arriskutsuen arteko bereizketa egin beharko dute, gutxienez. Horrez gain, aipatu hondakin mota bakoitza jasotzeko eta tratatzeko egingo diren jarduketak ere deskribatu beharko dira, birziklatzearen lau ardatz hauek aintzat hartuta: murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea eta behar bezala kudeatzea.

Hondakinak Kudeatzeko Planean ageri diren jarduketa-ildoak dagokienez, nahitaez aipatu beharko dira honako hauek:



DERIOKO UDALA

- Arriskutsuak ez diren hondakinak, papera, kartoia, beira eta plastikoa sailkatu egingo dira, eta bakoitza dagokion edukiontzira botako da.
- Berrerabil daitezkeen hondakinak behar bezala kudeatuko dira. Halaber, landare jatorriko hondakinak balorizatu egingo dira. Horretarako, konpost bilakatuko dira edota birrindu egingo dira, parterreak, gune trinkoak eta abar biguntzeko.
- Hondakin arriskutsuak, olioak, produktu fitosanitarioen hondakinak edo ontziak eta abar kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte.
- Zuhaitzek hostoak galtzen dituzten garaian, hostoak bildu eta Derioko udalerrian berrerabiliko dira.
- Halaber, zerbitzuan inplikaturako langileak sentsibilizatzeko ahalegina egingo da, hondakinak murriztu, berrerabili eta birzikla ditzaten.

Hondakinak Kudeatzeko Plan horretan azaldu ahalko da, halaber, kimaketatik, segatzetik eta orbela biltzetik jasotako hondakinen tratamendu berezia, bai eta landare jatorriko beste hondakin organiko batzuen tratamendua ere. Hondakin horiek tratatzeko proposamenak aintzat hartuko dira, esaterako, hondakinak landare jatorriko humus gisa erabiltzea baratzeetako eta bestelako lur landu batzuetako konpost bidez, landa-ustiategietako abereak elikatzeke erabiltzea, edo hondakin horiek birrintzea, gero mulching organiko gisa erabiltzeko.

5.5.4. Nahitaez bete behar den araudia

- Europako parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzendaritza-araua, hondakinei buruzkoa eta Batzordearen zenbait zuzentarau indargabetzen dituena. Indargabetzen diren zuzendaritza-arauak 2001eko urtarrilaren 16koak dira eta, horien bitartez, hondakinen zerrendei buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen zen.
- Hondakin eta lurzoru kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legea.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko lege orokorra. Hondakin arriskutsuentzako ontzietan uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du dekretu horrek)
- Ekainaren 28ko 952/1997, Errege Dekretua, maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea (Hondakin Toxiko eta arriskugarriei buruzkoa dena) gauzatzeko Araudia aldatzen duena.
- Otsailaren 8ko MAM/304/2002 AGINDUA, hondakinen balorazioari eta kentzeari buruz eta Europako hondakinen zerrendari buruz.
- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskuak kudeatzeko plana, 2003-2006. Uztailaren 30eko 14/2003 Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariarena (EHAO, 174 zk., 203-09-8).
- Abenduaren 14ko 1416/2001 Errege Dekretua, fitosanitario enbaseei buruzkoa dena.
- Apirilaren 24ko 11/1997 Legea, enbase eta enbaseen hondakinei buruzkoa dena. 94/62 Zuzendaritzako transposizioa.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Hiri hondakin solidoak kudeatzeko plan integrala.
- Urriaren 16ko 212/2012 Dekretua, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzarako Erakundeen Erregistroa sortzen duena.
- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko baimena duten kudeatzaileen zerrenda.
- Aplikagarria den bestelako araudia.

5.6. artikulua: Urteko programa, hileko programa eta txostenak



DERIOKO UDALA

Lanen planifikazioari eta txostenei dagokienez, kontratista behartuta dago Udaleko Zerbitzu Teknikoari honakoa ematera:

5.6.1. Urtero –Urteko lanen programa

XI. Kapituluaren zehatz-mehatz azaltzen den bezala esleipendunak urtero egin beharko du, zerbitzuaren hastapenetik, urterako lanen programa bat (1. Eranskina). Programa honetan, gutxienez, adierazita egongo dira honakoak:

- Egingo diren jarduketak eta lanak, non, maiztasuna, ebazpen denbora, ordutegi banaketa, itinerarioa eta abar aditzera emanaz.
- Lan ezberdinak noiz (urteko saio) egingo diren.
- Jarduketa bakoitzerako lan ekipoak (zerbitzurako langileak eta ekipo espezializatuak edo behar diren laguntza ekipoak). Modu finkoan zein etenean udalerrian lanean egongo den eta aipatu den ekipo bakoitzeko langileak eta makinak.
- Aurreikusitako desplazamenduak.
- Esleipendunak zerbitzuaren onerako interesgarritzat jotako edozein zeregin.

Derioko Udalak, bere aldetik, urteko programa bat emango du, jai egunen egutegia aditzera emanaz, erabiltzaileentzat baldintza onean mantentzeko baselizak, bideak eta abar.

5.6.2. Hiru hilabetekoa – Hiru hilabeteko jarduketa plana

Enpresa esleipendunak hiruhilabete bakoitzeko azken astean Hiru hilabeterako jarduketa plana aurkeztuko du, proiektu adjudikatzailaren eta aurrean aipatutako langileen Urteko Programaren arabera, eta egingo da baldintza teknikoaren agiriari eta Udalak agindutakoari jarraituz, eta hurrengo hiruhilabetean bete beharko diren lanak jasota izango ditu, aipatutako lanen Urteko Programak duen xehetasun berarekin.

5.6.3. Hilerokotasuna – Hileko lan orria eta bestelako txostenak.

Hilero kontratistak Derioko Udaleko Zerbitzu Teknikoari Lan Orria emango die, non egindako lanak zehaztuta egongo diren. Lan orrian jasota izango dira: izandako gauzatze-unitateen informazioa, eta egindako unitateak eta azpi-unitateak. Lan orrian adieraziko da jarduketa bakoitza amaituko den eguna izango du. Txosten horretan burututako betearazpen-unitateei buruzko informazioa agertuko da, bai eta egin dituzten unitate eta azpi-unitateei buruzkoa ere. Gainera, txostenean zehaztuko da betearazpen-unitate zehatzen esku-hartzea noiz bukatuko den.

Hilero kontratistak gorabeheren orria aurkeztuko du; horrekin batera aurkeztuko dira hilabetearen izandako eragiketa bereziak eta urgentziazko jarduketak: ikusitako ihesak, zuhaitzen arrak jausiak, aipatutako jarduketaren eskaerak, akatsak ureztaketan, ikusitako izurriteak, eta abar. Lan orri honek jasoko du akatsak noiz konpon diren. Eta lan orrian adierazita egongo dira ebatzi gabe dauden bitartean.

Aipatutako lan orriez eta etorkizunean sortu daitezkeenaz gain honakoak ere aurkeztuko ditu kontratistak hilero:

- Ureztapen instalazioaren kontrol orria.
- Ureztapen mantentamenduak izan duen maiztasunaren laburpena.
- Gorabeheren orria.



DERIOKO UDALA

- Inbentarioak izan dituen aldaketen laburpen eguneratua (1. Eranskinean erantsitakoa eta XI. Kapituluak aipatutako inbentarioa, kontratistak egin behar duena zerbitzuaren hastapenean).
- Parte de Tratamendu fitosanitarioaren orria.
- Agindu-orri eta aurreko hilabeteko berrikuspen orriari betetako erantzuna.
- Prestakuntzaren aurreko hilabetean ikusitako gauzatze-unitate bakoitzean egingo diren jarduketa ezberdinetarako lan programa.

Txosten hauetaz gain, Derioko Udaleko Zerbitzu Teknikoak egoki uste dituen eginbeharrekori buruzko txostenak eskatu ditzake egoki uste duen momentuan. Esleipenduna behartuta dago Derioko Udalak eskatutako datuak (kontratu honen zerbitzuari buruz) aurkeztera,

5.6.4. Hile bakoitzaren amaieran – Bilera.

Esleipendunaren ordezkaria Derioko Udaleko Arduradun Teknikoarekin bilduko da Lan Orriak eta Hileko Txostenak komentatzeko xedearekin, eta hurrengo hilabeteari eragingo dion Hiruhileko Jarduketa Plangintzan zehaztutako planifikazioa berrikusiko da.

Hurrengo hilabetean betebeharreko lan guztiak gauzatzeko, kontratista koordinatuko da Udal Zerbitzuekin eragozpen txikiak egiteko auzotarrei eta bide zirkulazioari, kasu bakoitzari dagozkion seinaleztapen-neurriak hartzen.

Gainera, kasu guztietan, abisatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei eta udaltzainei, lanak hasi baino 48 ordu lehenago, eta hilean sortu daitezkeen gorabeherak ere jakinaraziko dira, baldin eta bilera honetan aipatu ez badira.

5.7. artikulua: Akatsak kontratua gauzatzean – Zerbitzuaren mailak

Ulertuko da akatsak daudela zerbitzuan, Derioko Udaleko zerbitzu teknikoek ustez hauek gertatzen direnean:

- Hilero berrikusitako Hiruhilabeteko Jarduketa Plangintzan programatuta dagoen maiztasuna betetzen ez dutenean langileek., eta arau-hauste larritzat hartuko da, baldintza administratibo agiriaren 29. Klausulan dauden arau-hausteen barruan.
- Mantenamendu eragiketarako markatutakoa gainditzen duenean landareak, eta arau-hauste larritzat hartuko da.
- Landare batek bizi-baldintzak edo estetikoak ez izatea, baldin eta kontratistaren bermearen barruan badago, arau-hauste larritzat hartuko da.
- Izurrite bat detektatu eta kontratistak beharreko eragiketarik ez egitea arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartuko da. (ondorioen arabera).
- Plegu honetan adierazitako lan batzuk hasi eta ez amaitzea arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartuko da (atzerapenaren arabera).
- Kontratu honetan jarritako kalitatearekin lanak ez egitea arau-hauste larritzat hartuko da.
- Enpresa esleipendunak jarritako lanabesak, makinak eta ibilgailuak, formazio plana eta lan arriskuen prebentziokoak kontratu honetan ezarritakoak ez izatea, arau-hauste larritzat hartuko da.
- Matxuragatik aparteko eragiketa, edo urgentziazko edo larrialdiko zerbitzua ez egitea, edo hori hasi eta horren amaiera atzeratzen bada justifikatutako arrazoirik gabe, arau-hauste oso larritzat hartuko da.
- Lan orriak edo 5.5. artikuluan aipatutako txostenak edo programak ez aurkeztea, eta arau-hauste larritzat hartuko da.



DERIOKO UDALA

- Plegu honetan azalduta dauden artean lanen bat ez egitea, arau-hauste larri edo oso larritzat hartuko da (atzerapenaren arabera).



DERIOKO UDALA

VI. KAPITULUA

LANGILEAK ETA KONTRATUAREN GAINONTZEKO ELEMENTUAK

6.1. artikulua: Ematera Langileak

Kontratistak jarri beharko ditu artatze-lanak burutzeko beharrezkoak diren langile fakultatiboak, teknikoak eta laboralak. Langile horiek eskatutako gaitasuna eta praktika izan beharko dituzte, eta Udalaren zerbitzu teknikoaren arabera betebeharrak horiek betetzen ez dituztenak ordeztu beharko dira. Edozein kasutan, ondorengo langileak, gutxienez, izan beharko ditu artatze-lan arruntak (garbiketa, jorratzea, ureztatzea, etab.) egin ahal izateko:

6.1. a) Ordezkaritza bat:

Esleipendunak ordezkaritza bat izendatu beharko du langileen buru eta taldearen arduradun gisa, langileak Derioko Udalaren aurrean ordezkatzeko zerbitzuarekin zerikusia duten auzi guztietan. Ordezkaritza hori nekazaritza-ingeniaritza teknikoak izan beharko da, eta nahikoa eskumen izango du zerbitzua ematerekin zerikusia duten erabakiak hartzeko; hala, erabaki horiek ezin izango dute erabakitzeko gaitasun faltaren eraginik jaso, dela legez dela formaz.

Halaber, enpresa esleipendunaren organigramaren eskeman gutxienez bi nekazaritza-ingeniaritza tekniko egon beharko dira, arduraduna barne. Horren helburua da nekazaritza-ingeniaritza tekniko bat beti eskuragarri egotea, oporrak, gaixotasunaldiak, baimenak, hobetzeko ikastaroak eta abar gorabehera.


Ordezkaritza telefono mugikorra eta helbide elektronikoa izango ditu, eta beti bertaratu beharko da aipatu hileroko bileretara, aitzakiarik gabe, baita zerbitzuari buruzko auziak jorratzeko beste bileretara ere, gonbidatu badute. Dena den, horretarako beharrezkoa izango da bilera gutxienez 24 ordu lehenago deitzea. Ordezkaritza bertaratu ezin bada, bigarren nekazaritza-ingeniaritza teknikoak bertaratuko da, eta erabakitzeko eskumen bera izango du. Ordezkatua edo, behar bezala justifikatutako ezohiko kasuetan, arduraren eskuordetzea jaso duen pertsona izango da bitartekari baliadun bakarra zerbitzuari buruzko auzi guztietarako. Ordezkaritza horrek uneoro erantzun die Udalak egoki deritzen jakinarazpen eta jarraibide guztiei. Ordezkaritza horren kostua zerbitzuaren aurrekontuko gastu orokorren kontzeptuan sartuko da.

Ordezkaritza aurkitzeko moduan egon beharko da zerbitzua eskuragarri dagoen eguneko 24 orduetan, edozein gorabeherari edo larrialdi aurre egiteko. Ordezkaritza hori eskuragarri ez dagoenean, organigramako beste nekazaritza-ingeniaritza teknikoaren esku utziko du erantzuteko ardura. Kasu horretan, Udalarik aldaketaren berri eman beharko zaio behar besteko denborarekin (gutxienez 48 ordu lehenago). Ordezko horrek ere Udalaren oniritzia jaso beharko du.

6.1. b) Arduradun bat:

Lehen mailako ofizial titulua duen lortze-arduraduna taldearen burua izango da eta lan-ordutegi osoa izango du.

Arduradunak eta kontratistaren koordinatzaileak honako baldintzak beteko dituzte:



DERIOKO UDALA

- Lehen mailako ofiziala izatea.
- Bide publikoetako lanen arloan esperientzia eta prestakuntza izatea.
- Lanerako interesa eta gogoia izatea.
- Lanean jarrera ona izatea.
- Premiazko egoerei aurre egiteko eta lan handiko garaietan (jaiak, uztaila, zerbitzuak martxan jartzea...) antolaketa-gaitasun handia izatea.
- Herritarrak behar bezala tratatzea.
- Euskaraz eta gaztelaniaz jakitea.
- Udalerrian, zerbitzuak eman behar diren kale eta guneguztiak ezagutzea.
- Egin beharreko lanarekiko jarrera ona eta gogoia agertzea; izan ere, langile honek lotura estua du zerbitzuarekin eta bere postuarekin.

Kontratatutako koordinazio-lana egiteko aukeratu duen pertsonaren curriculum eta gaitasunak deskribatuko ditu.

Udalak onartu egin behar ditu bai zerbitzuaren arduradunaren izendapena bai egon daitezkeen aldaketa guztiak.

Koordinazio lanak egingo dituen arduradunak udalerriko guneguztiak eta kaleetara bizkor iristeko ibilgailu bat izan beharko du.

6.1. c) Lau lorezainari edo lorezaintzako laguntzaileak

Lau lorezain edo lorezain-laguntzaile, lorezaintzan adituak, ahal dela, lan-prestakuntza egokiarekin, berrikuste eta mantentze-lanak egiteko, lan-ordutegi osoarekin.

Udalerrian behin betiko izaera duten langileen artean, gutxienez, behar besteko iturgintza eta ureztatze ezagutzak dituen langile bat egon beharko da, hasiera batean larrialdiei erantzuteko eta arazo sinpleak konpontzeko.

Esleitutako lanak egiteko enpresa esleipendunak langile gehiago kontratatu beharko balitu, esleipendunak hitz ematen du Derioko Udaleko lan-poltsako langileak kontratatuko dituela.

Atal honetan aipatutako operadoreek eta gidariekin honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Pertsona arduratsuak izan behar dira eta antolatzeko gaitasuna izan behar dute.
- Euren burua kontrolatzeko gai izan behar dira bide publikoan gerta daitezkeen edozein egoerari aurre egin ahal izateko eta zerbitzuak zein udal-ordenantzek araututako lanak egin ahal izateko.
- Tratu egokia eman behar diote erabiltzaileari (gizalegezkoa, adeitsua, atsegina eta eraginkorra).
- Zerbitzuko peoiak gai izan beharko dira lanpostuak eskatzen dituen jarduerak egiteko.

Kontratatutako erantzukizuna izango da udal-zerbitzuek arduratzen diren langileei prestakuntza jarraitua ematea; dena den, horrek ezingo du zerbitzua inolaz ere kaltetu behar beste ordezkotako langile ez izateagatik.

6.1. d) Langile finkoak ez diren lorezaintzan adituak eta ofizialak



DERIOKO UDALA

Esleipendunak langile finkoak ez diren beste lorezaintzan aditu eta ofizial batzuk izan beharko ditu mantentze-lan bereziak eta lan espezifikoak egiteko edo berriztatze-, hobekuntza- edota hedatze-lanak egiteko. Esleipendunak zerbitzukoak ez diren langileak izan beharko ditu, larrialdi kasuetan edo une berezietan laguntzeko.

Uda garaian beste 2 lanpostu sortuko dira, peoi posturako, seina hilabetekoak.

Horretaz gain, esleipendunak iturgintzan adituak diren langileak eta berehala bertan egoteko gaitasuna dutenak ere izan beharko ditu, ureztatze-instalazioan sor daitekeen edozein arazo konpontzeko.

6.2. artikulua: Langileekin betebeharrekoak

Kontratua indarrean jartzeko momentuan, kontratistak eskura izan beharko ditu langileak.

Kontratuan zehaztutako lanak zuzentzeko, esleipendunak beharrezko langile teknikoak izendatuko ditu. Langile horiek Udaleko zerbitzu teknikoarekin harreman zuzena izango dute, hark emandako aginduak bete beharko baitituzte. Halaber, zerbitzuak eskatutako neurketak, sailkapenak, inbentarioak, aldaketak, etab. egin beharko dituzte langileok. Langile guztiek nortasun txartel bana izango dute eta operarioek dagokien uniformeak eraman beharko dute.

6.1 artikuluan aipatutako langileek urteko lan-egun guztietan egin beharko dute lan, bai eta lan-eguna ez denean eta arazoren bat (ur-ihesak, egun jakinetan egiaztatzeak egiteko beharra, etab.) sortu denean ere. Hori dela eta, oporraldian, gaixotasunengatik ez agertze-aldian, baimen-egunetan, hobekuntza-ikastaroetara joateko tarteetan, eta abarretan enpresak lan-prestakuntza berbera edo antzekoa duen beste langile bat jarri beharko du.

Hori dela eta, kontratistak uneoro izan beharko du zerbitzua behar bezala emateko beste langile. Langile horiek egiaztatutako gutxieneko esperientzia izango dute lorezaintza lanetan, oporrak, baimenak, bajak, baimen sindikalak eta abar direla-eta hutsik gelditu diren postuetako ordezkari gisa. Kontratistak langile horien soldatak, pizgarriak eta karga sozialak ordaindu beharko ditu, indarrean dagoen legediarekin bat.

Esleipendunak langileen zerrenda bat aurkeztu beharko du. Zerrenda horretan agertuko dira kontratistak kontratu honen xede diren lanak, hainbat kategoriatan, egiteko izendatuko dituen langileak. Zerrenda hori izenezkoa izan beharko da langile guztientzat. Zerrenda beti eguneratuta egon beharko da eta, horregatik, esleipendunak aurrez jakinarazi beharko ditu langileei dagokienez egin nahi dituen aldaketa guztiak. Halaber, langile berriaren ezaugarri profesionalak eta tituluak ere adierazi beharko ditu.

Langile bakoitzari buruzko xehetasunak eskaintzan adierazi beharko dira, eta subrogatutako enpresan izango duen lanaldi eta kategoria zehatza aipatu beharko dira. Bestalde, 2. eranskinean adieraziko da lorezaintzako zein langile subrogatuko diren kontratu honen xede den zerbitzua emateko.

Kontratistak, hala eskatzen zaion guztietan, langileen jarraipena egiteko eta lan bakoitzaren arduraduna identifikatzeko beharrezkoa den informazio guztia emango du.

Esleipendunak, hileroko txostenen bitartez, Udaleko zerbitzu teknikoari jakinaraziko dio zenbat langile dauden eta langile horiek nolako lanaldia izango duten.



DERIOKO UDALA

Udaleko zerbitzu teknikoaren ustez erabilitako baliabideak nahikoa ez badira, esleipendunari eskatu ahal izango dio kopurua handitzeko, egokia iruditzen zaion neurrian. Kasu horretan, langileen esperientzia eta kualifikazioa hobetzea aintzat hartuko da. Horrez gain, lehenago ere aipatu denez, enpresa esleipendunak esleitu zaizkion lanak egiteko langile gehiago kontratatu behar baditu.

GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK ENPLEGUA SUSTATZEKO LANGABEZI HANDIAN DAUDENENTZAT.

Kontratua exekutatzeke langile berriak kontratatzerakoan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete legearen arabera langabezian dauden pertsoneri, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onesten duenak, ezarritakoari jarraikiz. Hala, egin beharreko lanaren ezaugarri zehatzak direla-eta horrela egitea ezinezkoa dela frogatu den kasuetan salbu, kontratistek bermatuko dute kontratazio berrien % 100 aipatu kolektiboetako pertsoneri egingo zaiela.

Kontratistak egiaztatu egin beharko ditu kontratuaren exekuzioaren baitan egindako langileen kontratazio berriak, bai eta langabeziak bereziki jotako kolektiboetako pertsoneri dagozkien kontratazio berriak ere. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: izen-abizenak, NANA eta pertsona horrek Gizarte Segurantzaren alta eman duela eta izena emanda dagoela ziurtatzen duen agiria.

Eskatutako agiriak aurkezten ez badira eta kontratatzaileak ez badu betetzen legearen arabera langabezian dauden pertsonak kontratatzeke betebeharra, baldintzan aurreikusten den bezala, ulertuko da kontratistak ez duela kontratua bete. Ondorioz, kontratuaren aurrekontuaren % 10erainoko zehapena ezarriko zaio.

LAN BALDINTZAK BETETZEKO ARAUAK

Enpresa kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasuna eta osasun aroetako xedapen indardunak bete beharko ditu, eta batez ere, garatu behar diren prestazioak lan-ordenantzaren menpean edo dagokion hitzarmen kolektiboaren menpean daudenean.

Enpresa esleipendunak ziurtatuko du kontratua betearaztean errespetatu egin direla lanpostuak babestearen, lan-baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloetan indarrean dauden eta kasu honetan aplikagarriak diren xedapenak; hori frogatzeko, erantzukizun-adierazpenak edo, hala dagokionean, erakunde eskudunen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Betebehar hau ez bada betetzen kontratua ez dela bete ulertuko da, eta kontratuaren %10erako zigorra ekarriko du. Lan harreman indibidual eta kolektiboetako buruzko araudia betetzeko baldintzak.

Abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenei buruzko Legearen 6. eta 7. artikuluetan tipifikatutako lan-harremanen arloko arau-hausteren bat egiten bada kontratua exekutatu bitartean, arlo horretan eskumena duen agintaritzak enpresa kontratista zigortuko du, administrazio-bidearen bidezko zehapen irmoaren bitartez. Zigor hori jasotzeak esan nahi du kontratua ez dela bete, eta honako zehapen hauek jasoko ditu enpresak: kontratuaren aurrekontuaren % 5eraino, zehapena arau-hauste arin bati badagokio (6. artikulua); % 10eraino, zehapena arau-hauste larri bati badagokio (7. artikulua). Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenei buruzko Legearen 8. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiten bada kontratua exekutatu bitartean, ulertuko da kontratuaren oinarriko baldintza bat hautsi dela; hala, administrazio-bidetik emandako zehapena irmoa denean,



DERIOKO UDALA

kontratua bertan behera geldituko da.

Halaber, kontratistak kontratua exekutatu bitartean laneko arriskuen prebentzioaren arloan jasotako edozein motatako zehapenen berri emango dio kontratuaren arduradunari, unean-unean. Horrez gain, zehapen horien aurka jarritako errekurtsioak eta emandako ebazpenak ere jakinaraziko dizkio. Zehapenen berri emateko betebeharrak hori betetzen ez bada, ulertuko da kontratistak kontratuaren oinarritzko baldintza bat hautsi duela; hala, emandako zehapena irmoa denean, kontratua bertan behera geldituko da.

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARAUDIA BETETZEKO BALDINTZAK.

Abuztuaren 4ko 51/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenei buruzko Legearen 11. eta 12. artikuluetan tipifikatutako laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hausteren bat egiten bada kontratua exekutatu bitartean, arlo horretan eskumena duen agintaritzak enpresa kontratista zigortuko du, administrazio-bidearen bidezko zehapen irmoaren bitartez. Zigor hori jasotzeak esan nahi du kontratua ez dela bete, eta honako zehapen hauek jasoko ditu enpresak: kontratuaren aurrekontuaren % 5eraino, zehapena arau-hauste arin bati badagokio (11. artikulua); edo % 10eraino, zehapena arau-hauste larri bati badagokio (12. artikulua).

Gizarte Arloko Arauhauste eta Zehapenei buruzko Legearen 13. artikuluan tipifikatutako arau-hauste oso larri bat egiten bada kontratua exekutatu bitartean, ulertuko da kontratuaren oinarritzko baldintza bat hautsi dela; hala, administrazio-bidetik emandako zehapena irmoa denean, kontratua bertan behera geldituko da.

Halaber, kontratistak kontratua exekutatu bitartean laneko arriskuen prebentzioaren arloan jasotako edozein motatako zehapenen berri emango dio kontratistari, unean-unean. Horrez gain, zehapen horien aurka jarritako errekurtsioak eta emandako ebazpenak ere jakinaraziko dizkio. Zehapenen berri emateko betebeharrak hori betetzen ez bada, ulertuko da kontratistak kontratuaren oinarritzko baldintza bat hautsi duela; hala, emandako zehapena irmoa denean, kontratua bertan behera geldituko da.

Zerbitzu hau emateak ez du esan nahi bertan parte hartzen duten langileek funtzionario izaera dutenik, eta ez du inolako lan-loturarik eratzen Derioko Udalarekin. Hala, langileen arduradun bakarra kontratista izango da, eta hark ordaindu beharko ditu bai ordainsariak bai lan arloko legeetatik, gizarte-segurantzatik eta indarrean dauden beste lege aplikagarri batzuetatik eratorritako karga sozial guztiak. Enpresak horren berri eman beharko die langileei, eta hala adierazi beharko da zerbitzu horretan parte hartzen duten langileen kontratuetan.

Esleipendunaren gain egongo dira bere langileek berdeguneetan, zuhaitzetan, pertsonengan eta ondasun publiko zein partikularretan sortutako kalte eta galerak.

Bukatzeko, aipatu beharra dago enpresa esleipenduneko langileek ez dutela inolako harremanik izango (lan-harremanak, kontratu-harremanak, harreman funtzionalak zein beste edozein motatako harremanak) Derioko Udalarekin.

Lanak egin ahal izateko, laneko istripuak ekiditeko eta laneko segurtasunaren arloko araudia betetzen dela bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu beharko dira. Udalak, kontratista araudia betetzen ari ez dela hautemanez gero, kontratista behartu ahal izango du segurtasun neurriak hartzeko. Halaber, segurtasun neurrien arloan gabeziak egotearen ondorioz istripuren bat gertatzen bada, Udala ez da horren erantzule izango.



DERIOKO UDALA

6.2.1. Pertsonala lokalizatzea

Kontratatik Udalarik jakinaraziko zaizkie: langile guztien izenak, telefonoak eta ordutegiak eta batez ere zerbitzuaren arduradunarena, Derioko Udalak lokalizatu ahal izan dezan azkar.

6.2.2. Uniformeak eta lan ekipoak

Zerbitzuko langileek kontratatik hornitutako uniformeak eraman beharko dituzte. Uniforme horiek ez dute Udalak onartu gabeko adierazle, sinbolo edo logotiporik izango. Uniformeari dagokionez:

- Uniformea kontratistaren kargura joango da, eta urtaro bakoitzera egokituta egon beharko da; horretarako, uniformeak berokiekin, euritako jantziekin eta botekin osatuko da.
- Ezinbestekoa da uniformeak erabiltzea zerbitzuari dagozkion lan guztiak egiteko. Uniforme horrek ezin izango du izan uniformearen diseinuan aurreikusi gabeko adierazlerik, anagramarik ez eta sinbolorik ere.
- Garbi egon beharko da.
- Uniformeak zerrenda islatzaileak izango ditu, bide publikoan lanean ari diren langileak erraztasun osoz ikusteko, nola egunez hala gauez, eta eguraldia edonolako izanik ere.
-

6.2.3. Kortesia

Langileek adeitasun osoz tratatu beharko dituzte zerbitzuaren erabiltzailea, udal-agintariak eta herritar guztiak, oro har. Zerbitzuaren parte den langileren batek jarrera txarra badu, kontratistaren ardura izango da egoera hori berehalakoa konpontzea.

Kontratatik uneoro bermatu beharko du herritarren begietan zerbitzuaren kudeaketa ezin hobea dela.

Objektu, altzari, diru edo bestelako elementu baliagarriak aurkituz gero, aurkitutako hori Udak Zerbitzuen esku jarri beharko da; ondoren, zerbitzu horrek arlo horretan indarrean dagoen legediak esaten duenari jarraituko dio.

6.3. artikulua: Langileak subrogatzea

Enpresa esleipendunak langileen eta adjudikazioa egitean dauden langileen subrogazioa bermatuko du.

Derioko Udalak bere erantzukizun sozial eta ekonomikoa betetzeko, kontratu honen zerbitzuaren enpresa esleipendunari eskatuko dio langileak kudeatze politika bat bete dezan eta ordainsariak berrikusi ditzan produktibitate eta eraginkortasunaren arabera eta langileen erosteko ahalmena beti izango da helburu, gradu edo ratio zehatz batzuk lortzeko gaitasunaren arabera. Helburu, gradu zein ratio horiek askatasun osoz negoziatu eta adostu ahalko dira langileen legezko ordezkariekin.

Halaber, kontratua amaitzean, subrogatu daitekeen langileen kostua ezin izango da hau baino handiagoa izan, soldaten masaren termino homogeneoetan: lizitazio honetan subrogatu daitekeen langileraren kostua gehi kontratua indarrean egon den bitartean egon



DERIOKO UDALA

diren KIAren gorakadak. Horren salbuespen bakarra da plegu honetan bildutako zerbitzuak hedatu izana. Soldaten masa deritzo subrogazioaren xede diren langile guztien enpresaren kostu totala.

Subrogatu daitezkeen lorezaintza-kontratuko langileak 2. eranskinean zehaztu dira. Langile horietako bakoitzaren soldata Lorezaintzaren Arloko Estatuko Hitzarmen Kolektiboak ezartzen du.

6.4. artikulua: Baliabide materialak

Kontratu indarrean sartu eta kontratistak eskaini dituen baliabide materialak erabilgarri izango ditu.

Kontratistaren pentzura izango dira makineria, ibilgailu, tresna, elementu laguntzaileen (tutore, kordel, eta abar) erosketa, kontserbazioa eta banaketa, eta oro har, Plegu honetan deskribatuta dauden eragiketa guztiak behar bezala egin ahal izateko material guztia, aurkeztutako proiektu teknikoaren arabera.

Material guztia eskuragarri egongo da edozein larrialditarako horrela eskatzen badu Udalak.

Zerbitzuari emandako harraminta guztiak kontserbazio egoera onean eta garbi egon behar dira momentu guztietan kontratu hasten denetik. Material guztia garbitu beharko da modu egokiekina aldiro, zerbitzuan sartzen denerako pulkritud garbitasun itxura osoa izan dezan. Era berean, bere karguan, babes eta seinaleztapen neurriak izango ditu, bide publikoan lan egiten duten langileen eta erabiltzaileen segurtasuna berma dezatela oro har.

6.5. artikulua: Ibilgailuak eta makineria

Kontratututako lanengatik garraio guztiak egingo dira kontratistaren arrisku eta pentzura.

Kontratistak plegu honetan deskribatutako lanak behar bezala egiteko ezinbestekoak diren ibilgailuak, makinak eta tresnak izango ditu bere kargura, aurkeztutako proiektu teknikoak adierazi bezala. Kontratistak zerbitzuari atxikiko zaizkion ibilgailu eta makina guztien berri eman beharko du, bai eta horien ezaugarri teknikoen eta antzintasunen berri ere, xehetasun osoz eta idatziz.

Horretarako erabilitako ibilgailuek helburuarekin bat egiteko baldintza egokiak izan beharko dituzte, bai segurtasunari dagokionez, bai hiri-estetikaren egokitasunari eta osasun-baldintzei dagokienez. Horrez gain, automobil hori koloreko larrialdi-argi birakariak ere izango dituzte. Era berean, indarrean dagoen legearen araberrako seinaleak eramango dituzte, batez ere, mugitzen diren bitartean lan egiten dutenean.

Esleipendunak ezin izango du trakzio mekanikoko ibilgailurik sartu berdeguneetan, mantentze-lanei dagozkien ezinbesteko kasu hauetan salbu: ongarria botatzea, belarra, uzta zein kimatutako egurra jasotzea, landareak hornitzea, esparruaren garbiketa orokorra egitea, lurra edo txintxorra botatzea eta abar.

Ibilgailu eta tresna guztiak edozein larrialdiri aurre egiteko eskuragarri egon beharko dira, Derioko Udalak hala eskatzen duen kasuetan. Eskuragarri egongo dira, halaber, zerbitzuari esleitu gabeko nekazaritza-makinak, traktoreak eta lanabesak, Udalak hala behar duenetan. Horrez gain, esleipendunak iraulki kamioi bat, garabi bat eta kimatze osagarrietarako saskia ere izan beharko ditu, Udalak eskatzen duenean, haren esku jartzeko.



DERIOKO UDALA

Baimendutako ibilgailu guztiek errotulua eramango dute, lorezaintza-jarduera egiten dutela adierazteko eta horren bitartez, identifikatu ahal izateko.

Esleipendunak ibilgailuen edo oinezkoen bideak oztopatuko baditu zerbitzuari dagozkion lanak egiteko, gune horiek seinaleztatu beharko ditu araudiaren arabera adierazleekin, arrisku-oharrekin, kontuz ibiltzeko seinaleekin eta abarrekin. Horrez gain, oztopatze horren berri eman beharko die Udal zerbitzu teknikoari eta Udaleko teknikariei, ibilgailuen edo oinezkoen bidea oztopatuko duten jarduerak hasi baino 48 ordu lehenago, gutxienez.

Edonola ere, erabilitako bitartekoek:

-
- Uneoro bete beharko dute ingurumenari buruzko araudi aplikagarria (gasak isurtzea, zarata, segurtasuna eta abar).
- Ingurumena gutxien kaltetzen duen konponbidea aplikatu beharko dute.
- Ahal den neurrian energia alternatiboak erabiliko dituzte, errentagarriak direnean eta haien eraginkortasuna frogatu denean.
- Eraginkorrak, seguruak eta teknologikoki aurreratuagoak diren konponbideak aplikatuko dituzte.
- Ahalik eta erregai gehien aurreztuko dute.
- Berotegi efektuko gas eta partikula ahalik eta gutxien isuriko dute.
- Zaratek eta dardarek bizilagunei eragindako eragozpenak ahalik eta gehien murrizteko eskura dauden teknikarik onenak aplikatuko dituzte, eta horien erabilera zerbitzuen beharretara mugatuta egongo da.

Kontratatik ekarri beharko ditu ibilgailu eta material guztiak. Bestalde, erabili beharreko material bat zerbitzuari esleitu aurretik, Udalaren onespena lortu beharko du.

Esleipendunaren betebeharra izango da kontraturako ezarritako baliabideak garbi, egoera onean eta eskura izatea, eta ondorioz, matxurengatik, apurketengatik edota bestelako arrazoiengatik hauek erabilgarriak ez direnean, beste batzuk jarri beharko ditu haien lekuan.

Udalak edozein momentutan eska dezake ekipoa, makinak, ibilgailuak edo bere ustez eman beharreko zerbitzuarekin bat ez datozen tresnak aldatzeko, kalte-ordainik gabe eta eskaintzako prezioa aldatu gabe.

6.5.1. Ibilgailuen eta makineriaren mantenamendua

Ibilgailu bat konpondu edo berrikusi behar izateak ezin izango du inolaz ere zerbitzuaren funtzionamendu egokia oztopatu; hori dela eta, kontratatik ordezkotako materiala izan beharko du larrialdi kasuetarako. Halaber, zerbitzuari loturiko ibilgailu edo makina bat konpontzeko ordezkapenak ezin izango du lanegun bat baino gehiago iraun.

Makinak uneoro egongo dira operatibo, eta dagozkien lanak egiteko bezain besteko teknologia izan beharko dute. Zerbitzuari atxiki aurretik, Udalak izendatutako arduradunak ikuskatu egin ahaliko ditu aipatu makinak. Materialak uneoro izan beharko ditu itxura eta kontserbazio-baldintza onak.



DERIOKO UDALA

Kontratatzen arduraren izango da zerbitzuari atxikitako ibilgailu eta material guztien mantentze-lan prebentiboak, prediktiboak eta zuzentzaileak egitea, bai eta kontratuak iraun bitartean zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko erabiliko diren kontsumigarri guztienak ere.

Kontratatzen beharrezko berrikuspen mekanikoak egin beharko ditu ibilgailu eta tresna guztiak baldintza onetan daudela bermatzeko. Derioko Udalak eskumena du, beharrezkoa bada, ibilgailuen eta materialaren agiriak eskatzeko, ibilgailuak seguruak direla eta berrikusketa eta ikuskatze teknikoak behar bezala betetzen direla bermatzea helburu.

Erabiliko diren ibilgailu guztiek egoera ezin hobea izango dute eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) gainditu beharko dute. Zerbitzuari atxikitako material eta makina guztiak homologatuta egon beharko dira, dagozkien araudiak eta erabilera arau orokorrak zein espezifikoak bete beharko dituzte eta homologatu ahal izateko segurtasun- eta seinaleztatze-gailuak izan beharko dituzte. Zerbitzuei atxikitako ibilgailuek bete egin beharko dituzte bide publikoan libre ibiltzeko zirkulazio-kodean adierazitako baldintza guztiak. Udalak eskumena izango du egoki deritzon zerbitzuari atxikitako material mugikorra Euskadiko zerbitzu teknikora bidaltzeko, bertan ikuskapena egin diezaioten. Horrek eragindako kostuak kontratatzen ordaindu beharko ditu.

Halaber, kontratatzen arduraren izango dira eta hark ordaindu beharko ditu ibilgailuek aldian-aldian jaso behar dituzten araudiaren arabera ikuskapenak. Horrez gain, kontratatzen arduraren izango da indarrean dagoen legediaren arabera gehitu beharreko elementuak gehitzea. Udalak eskubidea du, beharrezkotzat jotzen duenean, IATren berariazko diagnostiko homologatu bat eskatzeko. Ikuskapenari dagozkion tasak kontratatzen ordaindu beharko ditu. Zerbitzuak iraun bitartean, ibilgailu eta makina guztiek bete egin beharko dute laneko arriskuen eta bide-segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia. Zerbitzua ematen duten ibilgailu guztiek bete egin beharko dituzte indarrean dagoen Zirkulazio Kodeak ezarritako betebeharrak guztiak. Horrez gain, erraz identifikatzeko moduan margotuta egon beharko dira.

6.6. artikulua: Instalazio finkoak


Kontratua indarrean dagoen bitartean, lizitatuak Derioko udalerrian lokal bat izan beharko du, gordetegi, bulego eta biltegi gisa erabiltzeko

Eskaintzan adierazi beharko dira lokalaren kokapena eta ezaugarri nagusiak. Lizitatuak lizitatuak, lizitatuak lan-sistemari eta barne-antolakuntzari hobekien egokitzen zaizkien instalazio finkoak proposatuko dituzte. Instalazio horiek indarrean dauden arauak eta legeak bete beharko dituzte. Enpresa esleipendunak kudeatuko ditu instalazioak, eta instalazioak kontratua hasten den unetik bertatik egon beharko dira erabilgarri. Horretarako, Udalaren onespena eta baimena izan beharko dituzte eta jarduerari aplikatu beharreko araudia bete beharko dute.

Enpresa esleipendunaren arduraren da laneko segurtasun eta higienari dagokien araudia betetzea, instalazio guztiak garbitzea eta desinfektatzea eta langileak instalaziotik lanpostura garraiatzea; garraio hori murriztu egin daiteke langileentzako hainbat abiapuntu ezarrita.

Instalazioek, gutxienez, honako hauen beste leku izango dute:

- Zerbitzuaren ibilgailu guztiak gordetzeko.
- Zerbitzuei atxikitako material mugikorra guztia zaintzeko, konpontzeko, garbitzeko eta desinfektatzeko.



DERIOKO UDALAK

- Materialak gordetzeko, baita zerbitzuari atxikitako makinek izan ditzaketen matxurak konpontzeko eta ordezkapenak egiteko beharrezkoak diren ordezkoak gordetzeko ere.
- Mintegi bat edukitzeko (enpresarena izan ala ez). Mintegi horretan behar bezala gorde ahal izango dira, besteak beste, landareak, zuhaitzak, zuhaixkak eta bizikorrak.
- Mintegiak 250 metro karratuko azalera erabilgarria izango du, gutxienez, eta landareak gordetzeko instalazio egokiak izan beharko ditu.
- Eragindako hondakinak kudeatzeko, birrindutako landare-hondakinak barne.
- Langileentzako tokia, dutxak eta aldagelak barne, eta bulegoetarako tokia.

6.7. artikulua: Komunikazioa

Kontratuak iraun bitartean, kontratistak gutxienez telefono mugikor hauek izango ditu: bat, ordezkariarentzat (ikus 6.1.a artikulua); beste bat, arduradunarentzat (ikus 6.1.b artikulua). Horren helburua da mantentze-lanak hobeto koordinatzea eta kontrolatzea.

Halaber, udalerriko leku ezberdinetan daudenean, langileek haien artean harremanak eduki ahal izateko komunikazio-sistema eduki beharko du.

Gainera, kontratistak posta elektronikoaren helbidea eman eta zabalik izango du, eta horren bitartez Derioko Udalarekin harremanetan egongo da. Esleipendun enpresak egunean behin irakurri beharko ditu, gutxienez, helbide horretan jasotako mezuak.

6.8. artikulua: Materialen hornidura

Kontratu indarrean dagoen bitartean, kontratistak gutxieneko izakinak edukiko ditu; hala ureztatzeari dagozkionak (aspertsoreak, loturak, etab.), nola lorezaintzari dagozkionak (herbizidak, ongarriak, intsektizidak, zurkaitzak, etab.), bai eta erabili ohi dituen ekipoari dagozkionak ere (soropil-ebakitzekoak, sasi-garbitzeko makinak, zerramakinak, ihinztatzeko atomizagailuak, eskorgak, etab.).

Udalak eskatu ahal izango du aipatu materiala benetan eskuragarri dagoela egiaztatzeko. Horrez gain, kontsumitzen diren materialak behar bezala ordezteko ere agindu ahalko du.

Halaber, kontratistak eskatzen zaizkion horniketak egin beharko ditu, adierazi zaion epean. Epe hori hornitu beharreko materialaren garrantziaren eta konplexutasunaren arabera izango da. Materiala Derio udalerriko toki zehatz batean eman beharko da; toki hori Udalak adieraziko du. Eman beharreko materialak askotarikoak izan daitezke, gauzatu behar diren lanen arabera.

Kontratuak barne hartzen ditu material guztiei (kontratak hornitutakoak izan ala ez) dagozkien gastu gehigarri guztiak, kargak, garraioak, deskargak, bilketak eta biltegitratzeak, baita materialen berezko gastuak ere.

6.9. artikulua: Lan-arroparen eta ibilgailuen errotulazioa

Udalerrian mantentze-lanak egiteko langileek indarrean dagoen lan-araudiaren arabera jantziak eta babes-neurriak izango dituzte (6.2 artikulua). Arropa horietan errotuluak agertuko dira, langile horiek Derioko Udaleko lorezaintza-zerbitzuarekin identifikatzeko. Uniforme horiek ez dute Udalak onartu gabeko adierazle, sinbolo edo logotiporik izango.



DERIOKO UDALA

Halaber, zerbitzurako erabilitako ibilgailuek eta makinek ere errotulu berberak eraman beharko dituzte. Ibilgailuetan eta makinetan esleipendunaren logotipoa serigrafiatu beharko da. Horrez gain, identifikazioa euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko da. Halaber, ibilgailu eta makina gehigarriek ere identifikazio hori izan beharko dute; alabaina, identifikazioa aldi baterakoa izango da, eta imanak, kartelak edo antzeko baliabideak erabiliz egingo da.

6.10. artikulua: Segurtasuna eta Osasuna

Segurtasuna eta osasuna lan-kontratuaren arlo garrantzitsuak dira. Enpresa esleipendunak ezinbestean bermatu beharko du bere langileen laneko segurtasuna. Helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa izango da kasu bakoitzean babes- eta prebentzio-neurririk egokienak aplikatu ahal izateko elementu guztiak eskura izatea.

Zerbitzua espero den kalitatearekin eman ahal izateko, kontratuak iraun bitartean indarrean dagoen araudi oro bete beharko da. Arreta berezia jarriko zaie laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araei; hala, kontratua exekutatzeko egin behar diren jarduera guztietan arriskuak prebenitzeko eta kudeatzeko sistema bat ezarriko da.

Erreferentzia gisa, araudi bat aipatuko da. Araudi hori kontuan hartu beharko da baliabide mekanikoak eta laguntzaileak hautatzeko unean.

- 1215/ 1997 Errege Dekretua, langileentzako lan-ekipoetan segurtasun eta osasun gutxienerako xedapenak jartzen dituena.
- Azaroaren 10eko 1849/2000 Errege Dekretua, produktu industrialen normalizazio eta homologazioari dagokien xedapenak derogatzen dituena.
- Urriaren 10eko 1644/2008 Errege Dekretua, makinak komertzializatzeko eta zerbitzuan jartzeko arauak jartzen dituena.
- Aplikagarriak diren bestelako arauak.



DERIOKO UDALA

VII. KAPITULUA

LANAK ZUZENTZEA ETA BERRIKUSTEA.

7.1. artikulua: Lanak berrikustea

Kontratuaren xedea den udalerriko lorategi-guneak, barneko landareak eta ureztatze-instalazioak mantentzeko, berritzeko, garbitzeko eta hobetzeko lanen nahiz horniketen eta bestelako egitekoen ikuskatze fakultatiboaren zuzendaritza Derioko Udaleko zerbitzu teknikoak egingo du, eta ondorioz, esleipendunari jakinaraziko zaio berarekin zuzenean harremanak izango dituztenak nortzuk izango diren. Zerbitzu honek momentu oro egiaztatuko du esleipendunak plegu honetan xedatzen den guztia modu egokian betetzen duela.

Beraz, kontratatutako lanei dagokienez, zerbitzuko zuzendaritzak eta ikuskaritza fakultatiboak agintzen dizkion mota, ordena, modu eta denborari buruzko xedapen guztiak bete beharko ditu esleipendunak.

Hauek dira ikuskaritza-zerbitzua beteko duten teknikarien eskumenak:

- Lanak garaiz eta modu egokian egiten direla kontrolatzea.
- Pleguan xedatutakoa zein esleipendunarekin geroago hitzartutakoa, langileen kopuruari eta kualifikazioari dagokionez, betetzen direla kontrolatzea.
- Lanak burutzeko erabili behar diren ibilgailu, makina, tresna eta gainontzeko ekipoei plegu honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
- Egiaztatzea ea artatze-lanetan parte hartzen duten langile guztien bertaratzea eta iraunkortasuna, baita ingurua, arropa, eskumenak, lan-jarduera eta jokabidea ere, bat datozen euren mailari, esku hartzeko tokiari eta agindu zaien lanaren garrantziari dagozkien baldintzekin.

7.2. artikulua: Lanak zuzentzea

Esleipendunak astero eta horrela adierazten zaion orduetan teknikari arduraduna Udalera bidaliko du, bertan zerbitzua hobeto eman ahal izateko beharrezko argibideak eta oharrak jaso ditzan. Gainera, 24 orduko epean eskatu ahal zaio udaletxera joateko, bertaratzea beharrezkotzat edo egokitatzat jotzen denean.

Hilero, enpresak aurkeztutako txostenen ildotik, enpresa esleipenduneko teknikariak, Udaleko zerbitzu teknikoarekin batera, esku-hartzeen betearazpen-maila eta kalitatea egiaztatuko ditu. Enpresaren ordezkaria edo eskuordetutako pertsona Udalak izendatutako teknikariarekin bilduko da eta honako hauen berri emango dio: zerbitzuaren bilakaera, berritasunak, mantentze-lanei buruzko kekek eta iradokizunak. Horrez gain, egin beharreko jarduerak proposatuko ditu eta lan-taldeentzako jarraibideak ezarriko ditu. Biler horretan, halaber, zerbitzuaren mailei (5.7 artikulua) eta hurrengo hilerako planifikazioari buruz hitz egingo dute. Planifikazio hori esleipendunak entregatuko du, Hiruhilekoko Jardueraren Planaren baitan.

Zerbitzua aldatzeko proposamenak Udalaren zerbitzu teknikoari igorriko zaizkio, eta hark hartuko du azken erabakia. Zerbitzuan aldaketaren bat egin behar izanez gero, kontratistak 7 egun naturaleko epea izango du eskatzen zaizkion aldaketak egiteko.



DERIOKO UDALA

Udaleko zerbitzu teknikoak hala eskatuta, gune berriak sartu ahalko dira. Dena den, gune berri horiek aurrez programatu beharko dira eta 1. eranskinean zerrendaturiko guneekin ordezkaturiko dira, betiere azalerari eta tipologiari dagokienez antzeko ezaugarriak badituzte.

Bukatzeko, aipatu beharra dago udalerrian gerta daitezkeen ezohiko baldintzetan edo ezinbesteko kausen eraginez (elurteak, suteak, uholdeak eta beste), esleipendunak eskura dituen eta proposamenean eskaini dituen baliabideak erabiliko dituela ahal duen heinean laguntzeko. Horren truke ez dio ezer kobratuko Udalari, nahiz eta jarduketa-eremua zerbitzuarentzat ezarritako mugetatik kanpo egon.



DERIOKO UDALA

VIII. KAPITULUA

LANAK ETA HORNIDURA EZBERDINAK

Kapitulu honen barnean daude enpresa esleipendunaren esku dauden material- eta landare-horniketa guztiak, bai eta lan berriak edota hobekuntza-lanen ondorioz udalerrriaren berdeguneetan egin behar diren lanak zein prestazioak ere. Gainera, lan berriak burutzeko, bertan dauden zerbitzu guztien informazio zehatza eman beharko du Udalak.

Zehazki, hauek dira Derioko Udalerrian lan berriak jasoko dituzten bi guneak:

- Aldekone Goikoa (esaldi bi gehiago).
- Ganbe Goikoa

2.1 artikuluan azaldu den moduan, esleipendunak % 7rainoko gune berde berriak onartu beharko ditu. Derioko Udalak hainbat arrazoiengatik gehi ditzake guneak zerbitzura, bestea beste: gune berriak dituelako, guneak hedatu egin dituelako, besterendu egin dituelako, erosi egin dituelako...

Aurkeztutako eskaintzaren barruan ez dauden lan, horniketa eta gainontzekoen zenbatekoak esleipendunak baloratu beharko ditu eta, lanei ekin baino lehen, Udalak onetsi beharko ditu.

Lizitatzailleek aurkeztutako hobekuntzei dagokienez, lizitatzailleek eskaintza ekonomikoan aurreikusi beharko dute plegu honetako XIII. kapituluan aipatzen den Hobekuntzen Plana garatu ahal izateko beharrezkoak diren inbertsioen amortizazioa



DERIOKO UDALA

IX. KAPITULUA

ERANTZUKIZU ZIBILAREN ASEGURUA

Esleipenduna izango da burutzen ari diren lanen ondorioz ondasunetan zein hirugarren pertsonengan sortutako kalte eta galeren erantzulea. Gauza bera gertatuko da plegu honen V. kapituluaren xedatzen diren lanak egitean sortu ahal direnekin. Horregatik, ondo seinatutako dira, kontuz egingo dira eta bizilagunekiko errespetuz egingo dira.

Sortu daitezkeen kalteen bermetzat esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruia izango du, 2.000.000 eurokoa, gutxienez, ezbehar bakoitzeko. Aseguru horrek kontratista, teknikari, bere menpe dauden langile, Udalari eska dakizkiokeen eta lanen zuzendaritza teknikoaz arduratzen diren erantzukizun zibila izango du barnean, hirugarren pertsonen eragin ahal zaizkien kalteengatik eta plegu honetako lanak burutzean sor daitezkeen ezbeharrengatik.

Enpresak aseguru-polizaren kopia eman beharko du.



DERIOKO UDALA

X. KAPITULUA

BERMEAREN EPEA LANDAKETAN, MATERIALETAN ETA ZERBITZUETAN. BAJAK ETA ELEMENTUAK KONTRATISTAREN PENTZURA ETA UDALAREN PENTZURA. BESTE PRESTAZIO BATZUK

10.1. artikulua: Bermearen epea landaketan, materialetan eta zerbitzuetan.

Hauek izango dira, besteak beste, lan horiek: apaintze-ezaugarriak nabarmenki galdu dituzten landare iraunkorrak zein sasoiko landareak, bizikorrek, zuhaixkak, arroakaiak, zuhaitzak, soropilak eta abar ordezkatzeari edo berritzea, bai eta egoera botaniko kaskarra dela-eta laster ordezkatzeari aurreikusten den elementu oro.

Kontrataren titularrek ekarritako eta landatutako landare-elementuentzat berme-epe hauek egongo dira:

- Zuhaitzak: urte1
- Zuhaixkak: 6 hilabete
- Belar landareak eta sasoiko lorak: 2 hilabete.
- Ureztatze-materiala, konponketak eta elementuak: urte 1

Berme-epea bukatzean ala bukatu baino lehen, esleipendunak dauden bajak berrezarri beharko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoak hala eskatu gabe. Esleipendunak ordaindu beharko ditu horrek eragindako gastuak.

Instalazioetan, kontratuaren xede diren elementuetan akatsen bat antzeman bezain laster esku hartu beharko du.

Landare-elementuak beste enpresa batek ekarri eta landatu dituen baina inbentarioan esleipendunaren esku agertzen direnean, azken horrek kontratu honen barruan dauden gainontzeko elementuak bezalaxe mantendu beharko ditu.

Kontratistak bere ardurapeko landare edo material jakin bat ordezkatzeko ez duenean, Derioko Udalak berak egin ahal izango du, esku-hartze hori burutzeko dagoen epea bukatzen denean. Horrela, hileroko jaso beharreko kopurutik ondorengo kantitateetatik altuena kenduko zaio esleipendunari:

Kontratu honen barruan dauden egungo zein etorkizuneko berdegune eta instalazioetan ondorengo irizpidea ezarriko da:

- Udalari dagokion kostua
- Lan horien kostuak eskaintzan emandako prezioen arabera.

10.2. artikulua: landaketak eta landare berriak jartzea. Elementuak eta beste prestazio batzuk.



DERIOKO UDALA

Kontratu honen barruan dauden egungo zein etorkizuneko berdegune eta instalazioetan ondorengo irizpidea ezarriko da:

Haizea, tximista eta antzekoak direla-eta hondatutako landare-espezieen kostua Udalak ordainduko du. Landatze-lanetarako langileak, materialak, makinak, etab., berriz, enpresa esleipendunak ordaindu beharko ditu

10.2. a) Zuhaitzak

Bajak diren zuhaitzak edota Udalaren zerbitzu teknikoaren arabera nahiko hondatuta daudenak kontratistak ordezkatu beharko ditu, bere gain eta galorde, urtean 3.000 eurora arte (BEZa barne). Horrek esan nahi du esleipendunaren ardura izango dela zuhaitzak ordezkatzeko, 3.000 eurora arte (BEZa barne). Urte bakoitzean erabili ez den zenbatekoa pilatu egingo da, hurrengo urteetarako. Horrez gain, ez dira aipatu zenbatekoan sartuko mantentze okerraren edo plegu honen kontra egitearen ondoriozkoak.

Zuhaitzen tamainaren, kokapenaren eta babesteko beharraren eraginez ezinbestekoa denean euskarri artifizial bat erabiltzea, gidak jarriko dira, horri buruz emandako jarraibideen arabera. Gida gisa 7x7x280 cm-ko akazia makilak erabiliko dira; makila horiek marrusketaz leunduta egongo dira eta lau aldeetatik kanteatu egin beharko dira. Makilak, lurrean sartuta dagoenean, 2,30 m-ko altuera erabilgarria izan beharko du. Zuhaitza gidara lotzeko, lotura elastiko bat erabiliko da, zuhaitza zabaletara hazi ahal izan dadin kalterik jasan gabe. Horrez gain, lotura horrek zuhaitza babestuko du astinduetatik, kolpeetatik eta gizakiek zein naturak eragindako beste eraso batzuetatik.

10.2. b) Zuhaikek eta belar-landareak

Bajak diren zuhaikek eta belarkiak edota Udalaren zerbitzu teknikoaren arabera nahiko hondatuta daudenak kontratistak eman eta landatu beharko ditu, bere gain eta galorde. Zuhaikea berri horiek baja izandakoen antzekoak izango dira; espezie berekoak eta 60 cm baino altuagoak. Halaber, edukiontzia berruz barruan ekarriko dira. Belarkiak ere edukiontzia berruz barruan ekarriko dira eta baja izandako hurrengo hilean edota Udaleko zerbitzu teknikoak egoki jotako momentuan landatuko dira.

Zuhaikek eta belarkiak ordezkatzeko eta ordaintzea esleipendunaren erantzukizuna izango da, bakoitzaren gastua 600 eurotik beherakoa denean (BEZa barne). Horrez gain, ez dira aipatu zenbatekoan sartuko mantentze okerraren edo plegu honen kontra egitearen ondoriozkoak.

Bestalde, kontratistaren ardura izango da, halaber, lore-parterreak landatzea, baita jaietarako eta ekitaldietarako (esaterako, Gabonetan) aldi baterako landatzeak egitea ere. Aldi baterako landatze horietan, sasoiko loreak landatuko dira (bioletak, ziklamenak, petuniak, poinsetiak, kannak, ahuntz-prakak, San Jose loreak, tulipak eta abar), udal-zerbitzuek erabakitako tokietan eta moduan, eta lore bakoitzari egokitutako dentsitatean. Horrez gain, urte osoan zehar loreak egongo direla bermatzeko espezieak aukeratuko dira.

Ildo horretatik, esleipendunak urtero landatze-plan bat proposatuko du. Plan hori onetsi egingo da, edo Derioko Udalak onargarri iritzi arte egokitu. Adostutako lore guztiak landatzen ez badira, esleipendunak Udalari emango dizkio soberan daudenak, hark erabil ditzan.

10.2. c) Berdeguneetako soropila



DERIOKO UDALA

Esleipendunak urtero birlandatu beharko du kontratu honen xede diren berdeguneetako soropilaren gainazalaren % 10, Parkeen eta Lorategien Zerbitzuaren irizpideen arabera.

Horretarako, urte bakoitzeko lehen bi hilabeteetan, esleipendunak berriz landatu beharreko soropilaren zerrenda bat aurkeztu beharko du, eta berriro landatzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko ditu. Udaleko zerbitzu teknikoak zerrenda onetsi beharko du eta, beharrezkoa bada, egokitzapenak egingo ditu.

Esleipendunak ordaindu beharko ditu lan horiek egiteko horniketa guztiak (ongarria, haziak, landatutakoa estaltzekoak eta abar); hala ere, produktu horiek erabili ahal izateko, Parke eta Lorategien Zerbitzuaren onespena beharko du.

10.2. d) Ekintza publikoak

Derioko Udalak egiten dituen jendaurreko ekitaldietan enpresa kontratistak apaintzeko beharrezkoak diren landareak (lorontzietan) ekarriko ditu, Udalak horrela eskatzen duenean. Ekitaldiak bukatu ondoren, esleipendunak landareak berreskuratu ahal izango ditu.

Lan horiek udalerrriaren gainerako mantentze-lan orokorren kanonean sartuta daude. Bertan sartuta daude, baita ere, 4.5 artikuluan aipatutako Landatze Egunerako eta Gabonetako zuhaitzak landatzeko beharrezko lanak eta horniketak.

10.2. e) Ureztapena jartzea

Instalazioek modu egoki funtzionatzeko beharrezkoak diren material guztiak esleipendunaren erantzukizuna izango dira, erosleentzako fabrikatzailearen tarifa 600 euro (BEZa barne) baino altuagoa denean izan ezik. Beraz, ondorengoak dagozkio esleipendunari:

- a) Edozein matxura konpontzeko beharrezkoak diren material eta tresna guztiak.
- b) Puskaren bat edota elementuren bat konpondu ezin bada, ordezkatu beharko du.
- c) Zaharrituta dauden edo akatsak dituzten material eta elementu guztiak. Hauek, besteak beste: aspertsoreak, tantakinak, ur-hartuneak, balbulak oro har, eta abar.

Udalaren esku egongo dira gainontzeko materialak. Horiexek fakturazioa bereizia izango dute, baina materialena baino ez; izan ere, eskulana eta garraioa mantentze-lanetan sartzen dira.



DERIOKO UDALA

XI. KAPITULUA

INBENTARIOA ETA LANEN URTEKO PROGRAMA.

Esleipendunak, zerbitzua hasten duenean, inbentario bat egin beharko du. Inbentario horretan bildu beharko ditu 1. eranskinean zerrendatutako guneeetan dauden loreen, zuhaixken, heskaieen, zuhaitzen eta lorontzien unitateak, bai eta arrokaieen eta zuhaiztien metro karratuak eta beste elementu batzuk ere. Horren helburua da arlo horretako inbentario osatua izatea.

Horrez gain, sei hilean behin, esleipendunak inbentario hori eguneratuko du, 1. eranskinean atxikitutakoarekin batera, eta mantendu beharreko elementuen unitateak gehitu edo gutxituko ditu.

1. eranskinean agertzen diren berdeguneak artatzeko eta plegu honetan aurreikusten diren ekintzen maiztasuna betetzeko, esleipendunak egin beharreko lanen Urteko Programa egingo du. Honako hauek bilduko dira bertan, besteak beste:

- Egin beharreko operazio eta lan guztiak, artatu beharreko guneeak, maiztasuna, lanak bukatzeko epea, lanorduen banaketa, ibilbidea eta abar.
- Operazio bakoitza gauzatuko duen lan-taldea (zerbitzuko langileak eta beharrezko ekipo berezituak edo laguntzaileak barne).
- Aipatu ekipoetan modu finkoan zein etenean udalerrian lanean arituko diren langileak eta makinak.
- Horien lekualdatze-aurreikuspenak.
- Zerbitzua egokia izateko esleipendunari beharrezkoak iruditzen zaizkion bestelako oharrak.

Egindako lanen zein zerbitzuaren parte diren langileen jarraipen egokia egiteko, argi eta garbi azaldu beharko da zeintzuk izango diren urteko hilabete bakoitzean zerbitzu honetan arituko diren langile finkoak. Horrez gain, lan-karga handiko hilabeteetan laguntzen arituko diren langileak ere aipatu beharko dira. Halaber, argiro zehaztuko da ekipo espezializatuek egingo dituzten lanak, lan horiek langile finkoek egiten ez dituztela egiaztatu ahal izateko.



DERIOKO UDALA

XII. KAPITULUA

BETEKIZUN ETA EZ BETETZEAGATIK ZIGORREN KONTROLA

Udalak betebeharren kontrol-sistema aplikatuko du esleipenduna zerbitzua behar bezala ematen ari den egiaztatzeko. Horretarako, aldian-aldian ikuskapenak egingo ditu. Enpresa esleipendunak, kontratua indarrean dagoen bitartean, betebeharren kontrol-sistema honi jarraitu beharko dio, zerbitzuak behar bezala ematen ari dela frogatzeko:

1. Esleipendunak berdegune berrien % 7ko emakida (gehenez ere) onartu beharko du, plegu honetako 2.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
2. Kontratu honen xede diren lanak egin beharko ditu, kontratuaren espiritutik eta interpretazio zorrotzetik urrundu gabe.
3. Esleipendunak zehaztasun osoz bete beharko ditu indarrean dauden arlo sozialari, lan arloari eta laneko segurtasunari buruzko lege eta xedapen guztiak.
4. Laneko guneak seinaleztatzeko, esleipendunak babes- eta seinaleztatze-neurri guztiak izan beharko ditu eskura, bide publikoetan lan egiten duten langileen segurtasuna bermatzea helburu.
5. Esleipenduna izango da egindako lanen harira gerta daitezkeen istripu, kalte, galera edo eragozpenen, hala ondasunei nola hirugarren pertsoneri eragiten dietenen erantzulea. Gerta daitezkeen kalte edo galerei erantzuteko, esleipendunak erantzukizun zibileko eta hirugarrenei egindako kalteak estaltzeko aseguru bat izango du, eta aseguru horren zenbatekoa nahikoa izan beharko da. Halaber, esleipendunak aseguru horren polizaren kopia entregatu beharko du kontratua bere egitean.
6. Esleipendunak behar bezalako instalazioak izango ditu langileen aldagelak eta tresnak, makinak eta materialak gordetzeko biltegiak jartzeko, aurkeztutako lan-proposamenari jarraikiz. Esleipendunaren ardura izango da instalazio horien kanpoko itxura ona mantentzea eta ondo margotzea.
7. Esleipenduna arduratuko da plegu honetan deskribatutako lan guztiek eta ezohiko lan gisa eskatzen zaizkion gainerako zereginak eragin ditzaketen hondakin guztiak kudeatzeaz.
8. Esleipendunak adierazi beharko du hondakinak tratatzeko zer zentro erabiliko dituen. Horrez gain, hilabete bakoitzean aipatu zentro horietara zenbat hondakin eraman dituen azaltzen duen laburpen bat aurkeztu beharko du.
9. Esleipendunak bere kontura garraiatuko ditu materiala, landareak eta kontratuan dauden lanengatik sortutako hondakinak.
10. Esleipendunak idatziz eman beharko du berdeguneetan hautemandako kalteen edo gorabeheren berri. Horrez gain, Udalarari jakinaraziko dio bide publikoetan egiten den eta berdeguneei eragiten dien obra edo lan oro.



DERIOKO UDALA

11. Esleipendunak zuzenean ekingo die jarduketa arrazoitua eta premiazkoa eskatzen duten konponketa-lan guztiei, Udalaren aginduei itxaron gabe. Ondoren, ahalik eta bizkorren emango zaio horren berri Udalari, idatziz.
12. Esleipendunak Udalaren jabetzako ur-hartuneak eta ureztatze-sareak erabili ahal izango ditu. Posible den tokietan, lehentasuna emango zaio freatikoko ura erabiltzeari. Udala arduratu beharko da ura hornitzeaz.
13. Ureztatze-sisteman aldaketak edo instalazio berriak egiten badira, esleipendunak proposamen bat eta ureztatze-instalazioaren krokis bat aurkeztu beharko ditu eta, bukatzean, behin betiko planoak aurkeztu beharko du hilabeteko epean.
14. Esleipendunak inbentarioko datuak mantendu eta eguneratu beharko ditu, hala landa-lanari dagokionez nola inbentarioa egiteari dagokionez. Inbentario horretan bildu beharko dira berdeguneak, bideak, zuhaitzak, zuhaixkak, belar-landareak, sasoiko loreak, ureztatze-fitxak, zuhaitzen artxiboak eta abar.
15. Langileek horretarako arrazoiren bat emanez gero, Udalaren eskumena izango da esleipenduna zigortzea.

Plegu honen xede diren lanak behar bezala egiteko xehetasunak omititu edo ez deskribatu arren, esleipendunaren betebeharra da aipatu xehetasun horiek egitea. Horretarako, esleipendunak ofizio eta ohitura onaren arabera jokatu du, behar bezala deskribatu izan balira bezala.

Gainerako paragrafoetan zehazten ez denerako, Udalaren irizpideak hartuko dira kontuan.

Esleipendunak ez badu adostutakoa betetzen, eta ez baditu egiten aurretik adostutako edo kontratatutako lanak, edo lan horiek epea iraungi ondoren bukatzen baditu; lanak ez baditu Hiruhilekoko Jarduketa Planeko programazioari jarraituz egin; lanek gabeziak badituzte, eskainitako baliabide materialak eskaini ez badira... unitatearen kostua kenduko da, behar bezala egin ez den lan hori egiteko zeregin eta pertsona programatuko.



DERIOKO UDALA

1. ERANSKINA - INBENTARIOA

GUNEAK		
	Azalera (m2)	Ebaketa kopurua
Hiri gunea	43.620	18,00
URIBE PARKEA	55.400	18,00
AREVALO LANDA	4.670	16,00
GAZIANE	8.345	16,00
PERRERA LANDA	1.415	16,00
ELEIZA	1.510	16,00
ERREKALDE EGOITZA	3.270	16,00
LOIU ESPALOAIA	1.480	16,00
SEMINARIO ESPALOIAK	1.135	16,00
ZEROETXE	1.520	16,00
ESKOLAK	1.500	10,00
INDUSTRIALDEA	4.740	10,00
ERREKALDE PARKEA	10.825	10,00
SEMINARIO PASEALEKUA	4.365	10,00
FUTBOL ZELAIKO KANPOALDEA	6.995	10,00
KAMIOIEN PARKINGA	310	10,00
HILERRIKO LANDA	3.500	10,00
REMENTARIÑE	20.000	18
GANBE harizti 1	18.500	6
GANBE haristi 2	2.000	18
GANBE mendoitzak	1.900	10
GANBE lorategiak	5.200	18
Nekazaritzako pasealekua	1.400	10
Teileri	1.200	10
Futbol zelaiaren barnealdea	2.400	10
Politeknika	3.800	10
Idorsolo 13-15 atzealdea	1.150	18
Bilbaobarri	200	18
Kultur	650	18
Kamioien parkinga	6.000	8
Institutuko aurreko partzela	6.500	2
Furbol zelairako bidetxoa	1.500	10
Aldekone Goikoa	1.181	18



DERIOKO UDALA

II. INBENTARIOA		
	Unitate.	Jardute kopurura /urtea
SOROPILA ONGARRITZEA m ²	126.375	1
ZUHAIXKAK INAUSTEA LERROAN m – hiru aldes	596	3
BANAKAKO ZUHAIXKAK INAUSTEA unit.	430	3
LURZORUEN AZALERA m ²	504	4
ZUHAITZEN INAUSKETA unit.	350	1
TXORKOAK AITZURTEA Un.t	1.358	4
SASOIKO LOREAK LANDATZEA Unit..	4.000	2
LORATEGIEN URTEKO MANTENAMENDUA unit.	60	1

**DERIOKO UDALA**

SASIAK KENTZEKO BIDEAK				
	m	Alboko zabalera zabalera 1	Alboko zabalera 2	Sasiakentzeko m ²
Artebakarra errepidea	2.200	2	3,0	13.200
Loiu errepidea	600	1	3,0	1.800
Geldo errepidea	900	2	3,0	5.400
Zeroetxe sarbideak	140	1	3,0	420
Geldo sarbidea	650	2	3,0	3.900
Seminario errepidea	950	2	3,0	5.700
Mantuliz	650	2	1,5	1.950
Islabe konbentua	270	2	1,5	810
Islabe + biltegia	260	1	1,5	390
Orrorño	530	2	1,5	1.590
Abeltegi sarbidea	120	2	1,5	360
Bidarte	240	2	1,5	720
Perubi	160	1	1,5	240
Aburto	160	2	1,5	480
Astikene	190	2	1,5	570
Gastañaga	520	2	1,5	1.560
Ibairdi sarbidea	100	2	1,5	300
Etxezuri sarbidea	50	2	1,5	150
Gastañagatxu	310	2	1,5	930
Tabernabari - Zuburrutxu	340	2	1,5	1.020
Bidebarri - Zuburrutxu	660	2	1,5	1.980
Zeroetxe - Zuburrutxu	230	2	1,5	690
Untza - Zuburrutxu	1.040	2	1,5	3.120
Artzaio	400	2	1,5	1.200
Olaburueta	260	2	1,5	780
Garaibeko	310	2	1,5	930
Garbigune sarbidea	200	2	1,5	600
Errekalde sarbidea	150	1	1,5	225
Semigain sarbidea	340	2	1,5	1.020
Teileri	430	2	1,5	1.290
Arteaga aurzoko uztaina	1.370	2	1,5	4.110
Aresti	75	1	1,5	113
Lobaga Beko	750	2	1,5	2.250
Lobaga Goiko	780	2	1,5	2.340
Sto Domingo etorbidea	190	2	1,5	570
Mauriko baso	100	1	1,5	150

Bide hauek ikusgai daude 4. Eranskinean dauden planoetan.



DERIOKO UDALA

2. ERANSKINA – SUBROGATZEKO DIREN LANGILEAK

KATEGORIA	KONTRATU MOTA	LANALDIA	ANTZINATASUNA
ARDURADUNA	MUGA GABEKOA (189)	%100	19-11-07
LOREZAIN LAGUNTZAILEA	OBRA EDO ZERBITZUA (401)	%100	06-04-09
LOREZAIN LAGUNTZAILEA	MUGA GABEKOA (189)	%100	02-03-09
LOREZAIN LAGUNTZAILEA	OBRA EDO ZERBITZUA (401)	%100	18-02-01
LOREZAIN LAGUNTZAILEA	OBRA EDO ZERBITZUA (401)	%100	01-09-08

**DERIOKO UDALA****3. ERANSKINA – PREZIO UNITARIOEN ZERRENDA**

LANAK, BITARTEKOAK ETA ABAR	ZENBATEKOA
Berdeguneak garbitzea	€/m ²
Berdeguneak segatzea	€/m ²
Berdeguneak ureztatzea	€/m ²
Ertzak egitea eta kontserbatzea	€/ml
Gune trinkoak egitea eta kontserbatzea	€/m ²
Eragin mantsoko ongarri kimikoak hornitzea eta aplikatzea zelaietan eta berdeguneetan	€/aplikatutako kg
Ongarri organikoa (konposta) hornitzea eta aplikatzea zelaietan eta berdeguneetan	€/m ³
Zerrendan jarritako zuhaitzak ureztatzea	€/unit.
Zerrendan jarritako zuhaitzetan ongarri kimikoa eta solidoa hornitzea eta aplikatzea	€/kg/aplikatutako zuhaitz unit.
Zerrendan jarritako zuhaitzetan ongarri likidoa hornitzea eta aplikatzea	€/kg/aplikatutako dosia zuhaitz unit.
Banakako zuhaixkak kimatzea eta murriztea	€/unit.
Heskaiak kimatzea eta murriztea	€/ml
Zuhaixka multzoak kimatzea eta murriztea	€/m ²
Aireztatze bertikal zulatua eta hareaz betea soropilean eta zelaietan.	€/m ²
Zerrendan jarritako 4 m arteko zuhaitzak kimatzea eta baimendutako produktuarekin orbaintzea	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzak kimatzea, altsumen garbiketa eta saneatze lanetan, goratzeko makina bereziekin	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzak kimatzea, herenkatze lanetan, goratzeko makina bereziekin	€/unit.
4 m arteko zuhaitzak moztea eta hondakinak kudeatzea	€/unit.
10 m arteko zuhaitzak moztea eta hondakinak kudeatzea, goratzeko makina bereziekin	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzak moztea eta hondakinak kudeatzea, goratzeko makina bereziekin	€/unit.
4 m arteko zuhaitzen motzondoak moztea eta hondakinak kudeatzea, makinekin	€/unit.
10 m arteko zuhaitzen motzondoak moztea eta hondakinak kudeatzea, makinekin	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzen motzondoak moztea eta hondakinak kudeatzea, makinekin	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
4 eta 10 metro arteko zuhaitzei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
4 metro arteko zuhaitzei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
Zuhaixka multzoei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
Banakako zuhaixkei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
Heskaiei tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/unit.
Soropilari tratamendu fitosanitarioa ematea, produktua hornitzea barne	€/ml
Dagoeneko landatutako zuhaitzetan gidak hornitzea eta jartzea, loturak barne	€/m ²
Dagoeneko landatutako zuhaixketan gidak hornitzea eta jartzea, loturak barne	€/unit.
Zerrendan jarritako zuhaitzak mantentzea eta lantzea	€/unit.



DERIOKO UDALA

Hiriko ezpondetan sasiak eskuz kentzea (eskuzko sasi-garbitzeko makinak) eta hondakinak kentzea, laguntzak eta ibilgailuak barne	€/m ² /lursail
Hiriko ezpondetan sasiak kentzea bitarteko mekanikoekin, beso artikulatudun traktorearekin eta sasi-garbitzeko makinarekin, eta hondakinak kentzea, laguntzak eta ibilgailuak barne	€/m ² /lursail
Lurra sakon lantzea, aurrerago erabiltzeko (goldatzea)	€/m ² /lursail
Lurra lantzea errotabadorearekin, profila berriz markatzea, harriak kentzea eta mailakatzea	€/m ² /lursail
Soropila landatzea, haziak, ureztatzea, bi segaketa eta errulatzea barne	€/m ² /lursail
Dagoeneko existitzen diren berdeguneak berriz landatzea eta beste lan osagarri batzuk egitea, haziak barne	€/m ² /lursail
Hidrolandaketa hainbat formularekin, kurasol eta zelulosa barne, esleipendunaren haziakin	€/m ² /lursail
Giza baliabideak: zerbitzuko lan-taldearen arduradunaren orduak	€/h
Giza baliabideak: lorezain-ofizialaren orduak	€/h
Giza baliabideak: lorezain-laguntzailearen orduak	€/h
Giza baliabideak: lorezain-peoiaren orduak	€/h
Kamioiaren orduak, gidaria barne	€/h
Errendimendu altuko kamioi erraztailearen orduak	€/h
Sasiak mozteko beso artikulatudun traktorearen orduak	€/h
Lurra prestatzea eta lantzea zuhaixkak landatzeko	€/m ²
1x1x1 metroko zuloa egitea, lurra ateratzea eta hondakinak zabortegira eramatea	€/unit.
0,40x0,40x0,40 metroko zuloa egitea, lurra ateratzea eta hondakinak zabortegira eramatea	€/unit.
0,40x0,40x0,40 metroko lur-erretena egitea, lurra ateratzea eta hondakinak zabortegira eramatea	€/unit.
Lehendik ere bazegoen tokian txorkoa irekitzea hirigunean	€/unit.
Lehendik ez zegoen tokian txorkoa irekitzea hirigunean. Txorkoa 1x1x1 metrokoa izango da, eta hondakinak zabortegira eraman beharko dira.	€/unit.
10 metrotik gorako zuhaitzak kimatzeko ibilgailu goratzailea	€/h



DERIOKO UDALA

HAINBAT HORNIKETA	ZENBATEKOA
Zuhaitzak (zerrendak, parkeak eta lorategiak) 14/16ko perimetroa	€/unit.
Zuhaixkak 3 litroko ontzietan	€/unit.
Bizikorrak M-9 loreontzietan	€/unit.
Loreak M-9 loreontzietan edota zotaletan	€/unit.

LANDATZEAK (HORNIKETARIK GABE)	ZENBATEKOA
Zuhaitzak zerrendan landatzea	€/unit.
Zuhaitzak parkeetan edo lorategietan landatzea	€/unit.
Banakako zuhaixkak landatzea	€/unit.
Heskaiak landatzea	€/unit.
Bizikorrak landatzea	€/unit.
Sasoiko loreak landatzea	€/unit.

HAINBAT HORNIKETA	ZENBATEKOA
Ongarri konplexuak (25 kg-ko zakua)	€/unit.
Landare-jatorriko lurra soltean (m3)	€/unit.
Landare-jatorriko lurra Big-Bag zakuetan	€/unit.
Substratua soltean (m3)	€/unit.
Substratua Big-Bag zakuan	€/unit.
Sima-ongarria soltean (m3)	€/unit.
Sima-ongarria Big-Bag zakuan	€/unit.
Zuhaitzentzako zurezko gidak, tratamenduarekin (2,5m)	€/unit.



DERIOKO UDALAK

4. ERANSKINA – PLANOAK

